

Marta Harnecker

«Ez da ahortzi behar
ezkerreko gobernu oro
berez eraikiko ez lukeen
aparatu batean dagoela»

Larrun

Literatura eta
memoria

Pablo Iglesias

«M15 leherketa
moduko bat
izan da eta
mugimendu
garrantzitsuak
agertzea
ahalbidetu du»

Autodefentsa feminista

Jarrera sexistei
aurre egiteko
tresna

Udako gomendioak

Liburuak,
kontzertuak,
errezitalak,
erakusketak,
antzerkia...

Uraren pribatizazioa

Multinazionalen
krisia baliatu
nahi dute
merkatua
handitzeko

Jolasen uztaila

ARGIA

Erosi jolas hezitzaileak euskaraz

www.argia.com/denda




Eskaintza berezia uztailaren 31 arte
beherapena jolas guztietan

10€ tan
jolas bakoitza

Harremana:

argia

943 37 15 45 · denda@argia.com





Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Xabier Letona. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produksioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soruluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko uztailaren 28a, 2.379. zenbakia

ASTEKO GAIA

URAREN KUDEAKETA Elementu ezinbestekoena merkatuaren jomugan. UNAI BREA, PELLO ZUBIRIA KAMINO / 4

PERTSONAIA

MARTA HARNECKER: «Jenderik gabe ez dago sozialismorik». SUSTRAI COLINA / 10

GAIK

AUTODEFENTSA Ostikada matxismoari.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 16

IRITZIAREN LEIHOA

UDAZKEN HOTZA GARBIÑE BIURRUN MANCISIDOR / 20

ZORIONTSU IZATEKO ERABAKIA ROSA M. MARTIN SABARIS / 21

HAURRA NEGARREZ DAGOENEAN, BAKARRIK UTZI?

NAHIA ALKORTA ELEZGARAI / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN Esanahia. AMETS ARZALLUS / 21

ZIRTA Egan-en itzuleraren alde. BEÑAT SARASOLA / 22

BERTSO BERRIAK Denontzako jaiak. UXUE ALBERDI / 23

ERDIKO KAIERA

KULTUR GOMENDIOAK Oporretan gozagarri. ARGIA / 24

IHESI URRETXU (GIPUZKOA) Irimoren magalak bizikletentzat ere badira. GORKA AZKARATE / 34

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 37

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 38

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 39

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

TERMOMETROA

PABLO IGLESIAS TURRIÓN: «Komunikabideen izaera publikoa aldarrikatu behar dugu, ez objektibotasuna». AXIER LOPEZ / 41

BAGERA ELKARTEAREN JARDUNALDIAK XXI. mendeko Donostia euskalduna irudikatzen. SAIOA LABAKA / 45

ABIADURA HANDIKO TRENA Irregularitasunak kontratueta. XUBAN ZUBIRIA / 48

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 49

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 49

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

OHARRA

Datozen asteetan ez da ARGIA kaleratuko, udako oporraldia dela eta. Irailaren 1ean itzuliko gara.

Elementu ezinbestekoena merkatuaren jomugan

Neoliberalak bataila bat galdu dute Europan, Michel Barnier komisarioak onartu duenean ur hornidura pribatizazio planetatik kanpo uztea. Milioi eta erdi sinaduraz goiti bildu dituzte ura zerbitzu publiko eta giza eskubidetzat aldarrikatzen dutenak. Gerran segitzen dute, ordea, uraren jabegoa bereganatu nahi dutenak.

| UNAI BREA / PELLO ZUBIRIA KAMINO |

2010EAN, Nazio Batuen Batzar Nagusiak gizarte zibilaren eskari historiko bat aintzat hartu eta giza eskubide izendatu zuen ur edangarria eta saneamendua eskura edukitzea, behar adinako kopuruan eta behar adinako kalitatez. Harrigarria eman dezake izendapena hain berandu iristeak, baina horrek

badu arrazoia: “Duela hogeitaz urte, inori ez zitzaion bururatuko ura giza eskubidea ez denik; izaera horri mehatxu egin zaiolako egin behar izan du NBEk bere aldarrikapena”, diosku Eloi Badia kataluniarrak. Mugarik Gabeko Ingeniaritza elkarteko eta uraren publikotasunaren aldeko hainbat plataforma-



DANI BLANCO

tako kidea da Badia. Argitu dezagun, ezer baino lehen, aipatu duen mehatxua ez dela atzo goizekoa. 80ko hamarkadatik, hainbat nazioarteko itunen bidez, munduko politikak diseinatzen dituztenak uraren kudeaketaren atea zabaltzen saiatu dira, merkatu librea sar dadin. Antza denez, 90eko hamarkadan Hego Amerikan izandako pribatizazio oldearen porrota ez da nahikoa irakaspen ona izan; azken urteetan, Europa da uraren multinazionalen jomuga berria. Eta pribatizazioaren podiumean, Britainia Handiaren ondotik, Euskal Herria partekatzen duten estatu biak daude, nahiz eta horrek modu desberdinean eragiten digun Bidasoaren alde batekoei eta bestekoei.

Zergatik falta da ura?

Aitzina egin baino lehenago, koka dezagun gaia bere testuiguruan. NBEk berak mundu mailako krisian gaudela ohartaraziz hasi zuen *Ura denontzat, ura bizitzarako* txostena, 2003an. Leku batzuetan euri dezente bota du ordutik, beste batzuetan askoz gutxiago, baina esan dezakegu egoerak ez duela hobera egin, kontrakoa baizik. Mundu osoan, 1.100 milioi pertsonak ez dute ur edangarria eskuratzerik —ondorioz, milioika hiltzen dira gaixotasun sendagarriren batek jota—, eta 2.600 milioi oinarrizko saneamendurik gabe bizi dira.

“Ur kopurua berdina da gutxi gorabehera”, dio Eloi Badiak, “baina gero eta ur edangarri gutxiago dago”. Horren arrazoi bat kutsadura da. Beste bat, ura nola erabiltzen dugun. Susan George analista eta idazleak 2010ean idatzitako *Whose crisis, whose future?* (Noren krisia, noren etorkizuna?) liburuan irakur dezakegunez, uraren %8 besterik ez da kontsumitzen etxeetan, aberatsenen igerilekuak barne. Gainerakoa, industriak eta nekazaritzak “edaten” dute. Laborantzak, zehazki, hamar litrotik zazpi bereganatzen du. “Medi-

Uraren gestio pribatuak publikoak baino emaitza okerragoak dituela frogatu arren, haren portzentajea handituz joango dela aurreikusten da

terranearra bezalako klima batean —dio Bartzelonan bizi den Eloi Badiak— ehortea ego-teak ez du berez agortzen edateko ura, eta hala ere etxeetan etenak egoten dira; egoera horretara iristeak esan nahi du erabileraren lehentasunak alderantzizkatu egin ditugula”.

Euskal Herrian zaila da ur faltagatik etenak ikustea, baina horrek ez du esan nahi arazorik ez dagoenik. Bizkaian, Bilbao Bizkaia partzuergo erraldoiarekin lehian ari da Busturialdekoa, askoz txikiagoa. Iratxe Arriola presidenteak dioskunez, ez dute hornidura eten behar izaten, baina udan, euria gutxitzea eta eskualdeko populazioa hirukoiztea elkartzen direnean, erreka asko oso ur gutxirekin gerta-

zen dira zerbitzua ziurtatuko bada. Horrek ondorio kaltegarriak ditu ekosistemetan, eskualdeko ekologistek partzuergoari gogorararazten diotenez. Baina hark ez du diru nahikorik inbertsioak egiteko, Jaurilaritzaren laguntza gehienak Bilbao Bizkaiaara doaz eta.

Pribatizazioak porrot, baina aurrera

Honezkero aditzera eman dugunez, askok ideia bat zabaltu nahi izan dute azken hamarkadetan: uraren kudeaketa hobetzeko modua, enpresa pribatuaren esku uztea da. “Kudeaketaz ari gara beti, uraren jabetza pribatua hutsaren hurrengoa baita”, argitu du Badiak, “eta kudeaketa bera ere publikoa da hein handi batean: munduan, %85 inguru”. Alabaina, 80ko hamarkadan sektore pribatuaren pesentzia areagotzeko politikak garatzen hasi ziren, eta gestio pribatuak publikoak baino emaitza okerragoak dituela frogatu arren, haren portzentajea handituz joango dela aurreikusten da. Urte gutxiren buruan %25eraino hazi liteke, Badiaren esanetan.

Eremu pribatua sustatu nahi duen doktrina Washingtongo Kontsentsuarekin abiatu



B R A N K A

Kontxako olatuen gainean, Haize Orraztearen ondoan, bertako produktuenganako arreta bereziarekin

Eduardo Chillida pasealekua, 13 · Donostia

© 943 317 096 · Faxe: 943 214 890 · branka@branka-tenis.com

www.branka-tenis.com



BASKIMAGEN

zen, duela 30 urte inguru. Doktrina hori honela laburtu daiteke: ur-baliabideak merkatuaren printzipioei jarraiki maneiatu behar dira, eta bai edateko ura bai saneamendua ondasun ekonomikotzat hartu behar dira. Beraz, zerbitzu horiek enpresa pribatuek kudeatu behar dituzte, publikoak baino eraginkorragoak baitira. Ustez, merkatuaren lehiakortasunak efikazia handituko du.

Praktikan ikusi dena, berriz, besterik da. Pedro Arrojo aditu espainiarrak dioenez, lehiakortasunaren abantailaren argudioa baliagarria izan daiteke beste alor batzuetan, baina ez dauka zentzurik urarenean, ur-hornidura zerbitzuek izaera monopolistikoa dutelako. Alegia, pribatizazioak lehiakortasuna sor dezake merkatua eskuratzeko unean, baina behin enpresa batek kontzesioa lortuta —normalean hainbat hamarkadatan aritzeko kontzesioa izaten da—, monopolio bihurtzen da. “Testuinguru horretan, eta paradoxa eman badezake ere, lehiakortasuna desagertzen da”, dio Arrojo. Ondorioa izaten da zerbitzua ez dela hobetzen, eta bai garestitzen. Erabiltzaileak ez dauka horren aurrean presio egiteko modurik, ezin baitu besterik gabe beste enpresa bat kontratatu. Hainbat ikerketa egin dira uraren gestio publikoa eta pribatua konparatzeko, eta ikusi denez, lehenbizikoak zerbitzu hobea ematen du.

Zadorrako urak hartzen dira Bizkaiko zati handi bat eta Gasteiz hiria hornitzeko. Sistemak badu arriskurik, batzuen ustez. Iñaki Antigüedad EHUKo hidrogeologia katedradunaren ustez, hainbeste pertsonarentzako ura hodi bakarretik eramateak zaurgarri egiten gaitu. Zer alternatiba genuke istripuren bat gertatuz gero? Euskal Herrian gehiengoa dira iturri txiki askotatik ura hartzen duten hornidura sistemak, baina populazioaren heren batek-edo Zadorrarekiko dependentzia du.

Laborategia Hego Amerikan ezarri zuten

Esandakoaren adibide, azken hamarkadetan, mundu osoko leku askotan erakundeek uraren kudeaketa publikora bueltatzea erabaki dute, sektore pribatuak porrot egin ostean. Batez ere, aipagarria da Latinoamerikaren kasua. Honela azaldu digu Eloi Badiak: “90eko hamarkadan Hego Amerika hartu zuten laborategitzat Washingtongo Kontsentsutik eratorritako politikak gauzatzeko, ezaugarri egokiak zituen eskualdea baitzen: batez besteko errenta behar bezain handia zen, aurreko urteetan egindako inbertsio publikoei esker beharrezko azpiegiturak baziren, zerbitzua nahikoa unibertsalizatuta zegoen...”. Pribatizazio oldeak, ordea, protesta sozial handia eragin zuen XXI. mendea hasiarekin batera, herritarrek merkatu librearen onurak dastatu ahal izan zituztenean: tarifak igotzea, kontratuak ez betetzea, sarearen gabeziak ez konpontzea... Bestalde, enpresa pribatuak gune populatueta besterik ez dute jotzen, eta bazterrean uzten dute landa eremua, ez baitaie errentagarria.

Europa da merkatu berria

Hego Amerikako esperimentua gaizki ateratzen zaitzaion sektore pribatuari, baina krisiari esker beste merkatu bat sortu zaie: Europa. EPSUk, Zerbitzu Publikoetako Sindikatuen Europako Federazioak, plazaratuta dauka

Tesalonika: ura pribatizatzea ez onartu edo berriro erosten hasi

MICHEL BARNIER komisarioak hartutako erabakiak ez zituen asko kontsolatu-ko dagoeneko dramatikoa murgilduta dauden Greziako herritarrak. Grezia gainerakoen aurretik erori baitzen krisiaren atzaparretan, murrizketa eta pribatizazioen laborategi aparta dauka gainerakook.

Troikak Greziari ezarritako neurrietako bat Atenas eta Tesalonika, herrialdeko bi hiri nagusien ur zerbitzuak pribatizatzea izan zen. Red Pepper aldizkari britainiarrak *“Resist and transform: the struggle for water in Greece”* (Eutsi eta eraldatu: Greziako uraren gatazka) kronikan kontatua du nola garatu den pribatizazio horren kontrako borroka 2009tik. Grezian erreportaje gogoangarriak bidaltzen dituen Hilary Wainwrighti kontatu diote Tesalonika hiriko ur zerbitzuko langileek hamabi eguneko greba eta okupazioarekin hasitako gudua.

Zerbitzu publikoetako sindikatuen buruzagi George Archontopoulousek Wainwrighti aitortu dio nola hasieran herritarrak mesfidatzen ziren sindikalistez: “Sei hilabetez saiatu ginen jendeak konbentzitzen gu herritar gisa ari ginela borrokan, ez gure lanpostuak galtzeko beldur ziren langileetat”. Enpresa publikoetako langile eta sindikatuak fama txarra dute: alferrak, ustelkeriaz beteak...

Sindikalistek luze eztabaidatu zuten pribatizazioez gain zerbitzuaren prezioaz eta kalitateaz, plazetan beraien ondoan protestan aurkitzen zituzten langabeekin, gazteekin, klase guztietako herritarrekin. Horatik sortu zen 136 iniziatiba.

136 zenbakiak azalpen erraza du: Tesalonika urez hornitzen duen EYATH konpainia publikoa estatuak salgai ateratakoan konpainiari jarri zioten prezioa zati-tu urez hornitzen dituen hiritarren artean eta ateratzen omen da 136. Euro kopuru horixe balio du mugimenduak herritar eta taldeen artean ur zerbitzua kooperatiba bihurtzeko saldu nahi dituen akzio bakoitzak.

Interneten 136 Initiative mugimenduak daukan gunean azaltzen du EYATH konpainiak aurreko bost urteetan 75 milioi euroko etekinak emanak zituela, 2011n bertan hoge milioi. Bitxia da nolaz burtsara



Blue Planet Project erakundeak Tesalonikan (790.000 biztanle) antolatutako manifestazio baten irudia.

ateratzeko lehen ahaleginean 60 milioi eurotan baloratu zuten konpainiaren %40.

136 Iniziatibak lau helburuok jarri dizkio operazioari: EYATH konpainiaren akzioen %40 horien jabe herritarrak egin daitezela diru bilketaz, uraren kontrola gizartearen esku egon dadila, konpainiak modu demokratikoan operatu dezala eta etekin ekonomikoak ez baina gizarte eta ingurumen etekinak bilatu ditzala.

Tesalonikak dituen hamasei auzuneen erdietan antolatu diren arren kooperatibak, ez da erraza dirutza hori biltzea. Herritar asko ez dago gaur egun sos bat jartzeko moduan, eta Tesalonikako Udalak ez daki nondik atera dagokion dirutza.

Aldiz, kooperatiba praktikan eraikitzen baino arrakasta handiagoa eduki du 136 Iniziatibak herritarrak uraren defentsan eta ondasun publikoen pribatizazioen kontra mobilizarazten. Esaterako, asko lagundu du Kavakos mendietan Eldorado multinazionalak urratu dituen meategien kontrako manifestaldi handia aurrera atera zedin.

Kooperatibizatze asmoetan eztabaidarik ez da falta. Syriza militanteek diote, ez arrazoirik gabe: “Zergatik erosi behar dugu geurea dena?”. 136 Iniziatibatik arrapostu: “Eta nola egingo diogu aurre pribatizazioari? Protesta egite hutsak eramango gaitu norabait?”. Denek arrazoi. Bitartean, uraren pribatizazioaren kontrako eztabaida eta mugimenduak zabalduz doaz bazter orotan.

Txorrotako uraren aldeko kanpainak botilaratzailleak haserrarazi ditu Gipuzkoan

TXORROTAKO URAREN apologia egin nahi izan du aurten Kutxa Ekoguneak. Batetik, *Etxeke Ura* kanpaina jarri dute martxan, ostalaritzan, baina baita etxeetan ere, txorrotatik ateratzen den uraren kalitatea aldarrikatzeko, Zuriñe Sanchez komunikazio arduradunak azaldu digunez. Alegia, ez dela ezertan botiletan –askoz garestiago– saltzen dena baino okerragoa. Tabernariei pitxer berezi batzuk eman zizkieten, bezeroak eskatu gabe ere iturriko ura eskaini dezaten. Aldi berean, *Grifoterapia* azpi-kanpaina ipini zuten abian, bezeroei zuzenduta. “Bage-nekien, inkesta bidez, jendeak ez duela ohiturarik iturriko ura eskatzeko etxetik kanpo, lotsagatik edo ezezkia jasotzeko beldurragatik”, dio Sanchezek.

Kanpainak oihartzuna eduki du Gipuzkoatik kanpo, eta azkenik, Espainiako ANEABEk, ura botiletan saltzen duten enpresen elkarteak alegia, kexa helarazi dio Kutxa Ekoguneari, *Grifoterapia* kanpainak zuzenean euren kontra jotzen duelakoan. Nonbait, haserrea piztu die kanpainak honako datua aipatzeak: botilako ura mila aldiz garestiago da txorrotakoa baino.

gaia xehetzen duen agiria, gaztelaniaz titulatu-
tua “*Por qué el agua es un servicio público: destapando los mitos de la privatización*”. Hamaika orrialde mamitsutan azaltzen du nolaz ura pribatizatzeko “moda” ekarri duten Europa-
ra Nazioarteko Diru Funtsak, Europako Banku Zentralak eta Europar Batasunak, Troika izen sobietarrez bataiatutako hirukote neoliberalak.

Aurreko orrialdean azaldutako Greziako kasua ez da bakarra. Portugalen, Aguas de Portugal enpresa publikoaren pribatizatzea planteatu da herrialdearen ekonomia “sendatzeko” neurri gisa, eta Italiak ere antzeko presioak ditu. Italiako kasua paradigmaticoa da, gizarte zibilak lortu baitzuen, sinadura bilketa bidez, gaiari buruzko erreferenduma antolatzea eta irabaztea, 2011ko ekainean. Ura esku publikoetan uztea, edo dagokionean esku publikoetara itzultzea erabaki zuten italiarrek bozkaz, baina Europako Banku Zentralak gobernuari jakinarazi dio ez dela momentu egokiena herritarren nahi hori praktikan jartzeko. Desobediencia zibila bizi-bizi dago orain.

Europako Gizarte zibilak lortu du halaber, eta zehazkiago EPSUk, milioi eta erdi sinadura baino gehiago biltzea –milioi bat behar zuten– ura pribatizatzearen aurka.

Oiola, lindanoz kutsatutako ura Ezkerraldean

EUSKAL HERRIAN ez da orobat eztabaida handirik uraren kalitateaz. Txorrotatik irteten denaz fidatu eta goiko koadroan aipatutakoa bezalako kanpainei sintsi diezaiekegu. Oiolarako urtegiaren afera da, behar bada, salbuespen bakarra, baina ez nolanahikoa.

Bizkaiko herri askok, eta Bilbo Handiko gehienek, Zadorrako sistematik hartzen dute ura, Bilbao Bizkaia Partzuergoaren bitartez. Baina Barakaldo, Alonsotegi

eta Sestaok –100.000 biztanle inguru– Oiolaratik hartzen dute ura 1967tik. 2008an, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak lindano kopuru handiak neurtu zituen hiri horietako etxeetako uretan: legediak onartutakoa baino bost aldiz gehiago. Urtegiaren bertan, kantitateak askoz handiagoak ziren. Gogoratu dezagun lindanoa gaur egun debekatuta dagoela, ondo dokumentatuta baitago osasunari egiten dio kaltea (ikus ARGIA 2.196).

Urtegitik ura hartzeari utzi zioten tarte batez, eta EHUri ikerketa bat eskatu. Unibertsitateko zientzialariek ez zuten detektatu lindanoaren iturria, baina bai zein errekatatik iristen zen urtegiara. Protokolo batzuk ezarri ziren, eta haien ondorioz urtegiaren hainbat aldiz ireki eta itxi da urteotan. Hau idazteko unean, eta apirilaren 22tik, Oiolarako ura edaten ari dira aipatu hiru herrietako biztanleak. Barakaldoko Udaletxeak dio neurtzen ari diren lindano kopuruak onargarriak direla osasunerako; Ezpitsua elkarte ekologistak, berriaz, urtegi-ko ura saretik kentzeko eskatu du, balizko kutsadura foku guztiak ezabatuta daudela erabat ziurtatzen ez den bitartean.

INIGO AZKONA



Hala, Michel Barnier, Europar Batasuneko Barne Merkatu eta Zerbitzuetako komisarioak, pribatizazioari buruzko zuzentzarutik kanpo utzi du ura.

Hego Euskal Herria, publikotasun irla Espainiako liberalizazio uholdean

Kontuak kontu, uraren kudaketa pribatuak indar handiagoa du Europan munduko beste lekuetan baino. Zehatz esateko, %30 inguru, munduko %10a baino dezente handiagoa. Baina hainbat estatutan gestioa erabat publikoa da, eta horrek esan nahi du beste batzuetan portzentajea handiagoa dela. Arestian esan bezala, Frantziako eta Espainiako estatuak dira kudeaketa pribatu gehien daukatenetako bi.

Euskal Herrian modu desberdinean eragiten du horrek Iparraldean edo Hegoaldean. Iparraldean, ia udal guztietan kudeaketa pribatua dago; salbuespenen artean, hori bai, Baiona dagoela esan behar da. Hego Euskal Herria, berriz, uhartetzat jar daiteke Espainiako Estatuan: kudeaketa publikoa %85-90ekoa da, estatukoa %50 ingurukoa denean —urte amaieran %43ra jaitsiko dela kalkulatzan dute ur publikoaren aldeko mugimenduek—.

Lehenago gogora ekarri ditugun lehorreak ez dira erabiltzaile bati ura eteteko arrazoi nagusi bakarra, gaur egungo krisi egoeran. Operadore pribatuek Espainiako hirieta-ko hornidurak eskuratu ahala, gero eta maizago ikusten da faktura bakarra ordaintzeari uzteagatik ur gabe geratzea. Giza eskubide izaerarekin nekez ezkondu daiteke hori, Luis Babianok, AEOPASeko (Hornidura eta Saneamenduko Operadore Publikoen Espainiako Elkarte) gerenteak dioenez. Babianok inbidiaz begiratzen dio Hego Euskal Herriari. Haren ustetan, uraren izaera publikoa ongi blindatuta dago hemen, gizarte zibilak oso barneratuta duen ideia delako.



Euskal Herriko ur partzuergo handiena da Bilbao Bizkaia.

Javier Maroto Gasteizko alkateak AMVISA, hiria urez hornitzen duen enpresaren erdia pribatizatzeke asmoa agertu du

Pribatizazioaren mamuaz salbu da Hegoaldea, hortaz? Momentuz baietz esan liteke, baina tentuz ibiltzeko gomendatzen dute zenbaitek. Ez da ahaztu behar Javier Maroto Gasteizko alkateak AMVISA, hiria urez hornitzen duen enpresa publikoaren %49 pribatizatzeke asmoa, oraingoz gauzatu gabea, ager-


tu zuela iazko udazkenean. Erantzun moduan, akaso, Arabako Batzar Nagusiek PSEk aurkeztutako mozio bat onartu zuten joan den apirilean, Aldundiari eskatuz ez dezala liberalizatu uraren sektorea. Bestalde, Espainiako Estatuan iragarrita dagoen udal administrazioaren erreformak zer-

bitzu ororen pribatizazioa eraztuko du, Madrilgo Gobernuak berak aitortu duenez. Nolanahi, arrisku handirik ez du ikusten Inigo Elosegik, Gipuzkoako Urak partzuergoko gerenteak: “Uraren pribatizazioa, hemen, oso lotuta dago aukera politiko batekin; nik ez ditut ikusten EAJ, PSE eta Bildu bide hori urratzeko prest”. ■



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



MARTA HARNECKER

«Jenderik gabe ez dago sozialismorik»

Inbidia ematen didate bi lagunuen aurrean, 200.000ren aitzinean bezainbateko suhartasunez hitz egiten dutenek. Inbidia, “para nosotros siempre es 26” kantatuz bizi direnek.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

Louis Althusser.

Begiak irekiarazi zizkidan. Acción Universitaria Católica-ko lehendakari iritsi nintzen Frantziara, fedea pitzatzen hasita, eta marxismoa lantzeko xedez. Determinismoak, mekanizismoak eta materialismoak krika-kraka eragiten zidaten arren, Althusser-ek marxismo ezberdin bat irakatsi zidan, jendartea ulertzeko balio zidan marxismo bat. Kristau gisa jendeak elkar maite zuen gizarte solidarioa nuen amets, eta marxismoak, berekoikeria eta lehiakortasuna sustatzeko partez, pertsonen arteko maitasuna errazten zuen egitura berri baten beharraz ohartarazi ninduen. Bestalde, Althusser-i zor diot klasikoak ikertzeko metodoa. Etengabe azpimarratzen zidan garaiazen pentsamendua konprenitu behar zela autorearen hitzen zentzua jakiteko, sasoiaren arabera esanahi ezberdina baitute eleek. Hala, argi dut Althusser-ek borrokarako instrumentu bat erakutsi zidala, ez ponpo-xokeria esnobista intelektual bat. Pentsa, Hego Amerikan, marxismoaren interpretazio althusserianoa muineraino barneratua izan dela liberazioaren teologiatik hasi eta borrokarekin konprometitutako ezkererraino.

Paristik Txilera bueltan, langile eta nekazarien formakuntzan konprometitu zinen.

Conceptos elementales del materialismo histórico famatua idatzi nuen 1969an, eta unibertsitateko irakasle izateko liburu bat idatzi izana doktoretza baino gehiago baloratzen zenez, marxismoaren lehen katedra egituratzen hasi nintzen. Aldi berean, alderdi sozialistako militante izanik, formazio klaseak ematen nituen. Besteekin konparatuz izugarriko jakintza antsia zeukaten langile eta nekazariak. Euren egunerokoan aplikatzeko modu-

ko kontzeptuak nahi zituzten, ez lainoen formaren inguruko eztabaidak. Teoriari praktika eranstea izan zen niretzat, esperientzia ezin aberasgarriagoa, eta ordutik dut ideia jakintsuena ere ikasketa akademikorik ez duen jendarengana helarazteko obsesioa.

Egun, ideologikoki behar bezala formatzen da langileria? Intelektualak ez ote dira euren artean ari?

Formakuntzaren krisia ez da gaurkoa. Sozialismoa jaustean, eszeptizismoak kolpatu zuen ezkerrea, eta antolaketa molde berrien bila hasita, buruzagiek ahanzi zuten formazio marxista bat jaso zutela, eta formakuntzaren arazoari heltzen ez zioten egitura zabalak ezarri zituzten plantan. Ondorioz, zer gertatu den? Oso mugimendu interesgarriak sortu direla, Kolonbiako M-19a kasu, baina erreleboa emateko tenorea iristean akabo festa! Niretzat munduko fenomeno interesgarriena den Brasilgo Lurrik Gabeko Mugimenduak, aldiz, sekulako apustua egin zuen formazio eta transmisio

NORTASUN AGIRIA

Txilen sortu zen Austriako etorkin familia batean. Autore marxista-leninista garrantzitsu honek etengabe aztertu du langile mugimenduaren eta ezkerren bilakaera. Louis Althusser filosofo frantsesaren dizipulu, Hego Amerikako eta munduko ezkertiar anitzengan eragin handia izan zuen *Los conceptos elementales del materialismo histórico* liburuaren idazlea da, beste askoren artean. Hego Amerikako ezkerren dibulgatzaile nekagaitz, Manuel Piñeiro Kubako segurtasun indarren buru zenaren bikote izan zen, baita Chávezen aholkulari ere 2002tik 2006ra.





eskoletan, Hego Amerikako laborari guztiei eta mugimendu urbano anitzi laguntza eskainiz. Ezinbestekoa da aurrez urratutako bidea ulertzea, egiten ari garenari eta egin nahi dugunari buruz iritzia trukatzeko, eta duede buruz eztabaidatzea. Intelektualek diotena baino gehiago inporta zait Hego Ameriketara agertzen ari den jakintza antsia. Zoritxarrez, ez baitugu aski irakasle berau asetzeko.

Nola transmitituko zenituzke Berlingo harresia- ren erorketa eta sozialismo erreala- ren azkena?

Nik une hartan Txileko unibertsitatea utzi nuen ezkerreko aldizkari baten zuzendaritza hartzeko. Bertan, iristear zen estatu kolpea aurreikusi eta salatu genuen, eta Allende derrotatu zutelarik, erremediorik gabe erbeste-
teratu behar izan nuen. Sozialismoaren porrotak arazo eta kontraesanak loratu zituen nigan. Argi daukat inork bere sentitzen ez zuelako jausi zela hain fite. Etsipen putzu hartatik jalgitzeko, ezkerrearen krisia pairatu arren nondik ekin bazegoela frogatzen zuten esperientzietan jarri nuen begia. Beste jendarte modu baten haziak ikusi nituen, boterea jendearengan delegatzen zuten gobernu garbi eta gardenak. Era berean, kri-

siak liburuekiko errezeloa ekarri zuen, eta formakuntza metodo berriak behar genituen. Orduantxe jabetu nintzen askoz jende gehiagorengana heldu nintekeela istorioak kontatuz kontzeptuen antolaketaren bidez baino, praktikatik abiatzea beti dela eraginkorragoa. Horregatik, ezer transmititzekotan, borroka eta formazioa ez direla inoiz bukatzen transmitituko nuke. Memento goxo zein zailetan, beti jo behar dela aitzina.

Marxismo bera al dira gobernuarena eta oposizioarena?

Brasilgo esperientzia lokalak ikertzen hasi eta gobernuan zeuden eta ez zeuden alderdiki-
deen artean sekulako kontraesanak zeudela jabetu nintzen. Ondo bidean, gure pentsaerak alderdiari onartzen dizkio bisioa eta ekinbidea, baina alderdiak denbora gehiegi pasatzen du eztabaidatu eta erabakitzen, eta gobernuak epe laburreko erantzunak behar ditu. Horri ghitzen badiozu jende gaituena alderdian egon beharrean gobernuan dagoela, nola ez dira tal-
kak egongo? Horri aurre egiteko modu bakarra etengabe jendea trukatzeko da, gaur gobernuan dagoena bihar alderdira pasatzea, eta alderantziz. Errazena da egoskortu eta norbe-
re aulkiari azazkalekin heltzea, baina postu bateko urte batzuetako esperientziak baino gehiago balio du argazki orokorrak jabetzeko ahaleginak. Izan ere, gizarte mugimendu baten dinamikak ez dauka zerikusirik gobernu bate-
narekin, eta beti sortuko dira kontraesan eta krika-krakak. Horregatik, ezinbestekoa da gobernu-
en presio eta kritikak onartzea, eta herriari garbi aitortzea: “Bakarrik ez naiz deus, zuek antolatuta egotea behar dut, nire akatsez ohartaraztea, akuilatzea...”. Ez da ahantzi behar ezkerreko gobernu oro berak berez erai-
kiko ez lukeen aparatu batean dagoela.

Nola artikulatu behar du ezkerrek?

Alderdi modeloak kopiatuzaleak izan gara, baina Hego Amerikan garbi daukagu tresna politiko berri bat sortu behar dugula. Horrek ez du esan nahi alderdien berreskurapenean sakondu behar ez dugunik, politika ulertzeko manera eta dinamika aldatu behar ditugula baizik. Izan daiteke gizarte mugimenduen egun dutena baino askoz rol garrantzitsuagoa luketen fronte zabal bat, izan daiteke sare bat, izan daiteke... Tresna hori birpentsatu behar dugu, ezkerreko alderdiak ukatzen hasita gure ideiak egituratzeko tresnarik ez dugula behar sinestera heldu baikara. Zer gertatu da, alta, munduan barna sortu diren mobilizazio erraldoiekin? Artikulatu ezean, emaitzarik gabe agortu direla. Kapitalismoa bezain etsai boteretsu baten aurrean, derrigor-
tuta gaude antolatzerako, horrek soilik irekiko digu une



erabakigarrietan ekintza erabakigarriak gauzatzeko atea. Tresna horrek tokian tokiko errealitatera egokitu beharko du eta aldaketa sustatu. Herrialde batzuetan dagoena egitura beharko da, beste batzuetan hutsetik sortu, baina akats handia da mugimendua alderdiaren menean edukitzea. Mugimenduarena da hitza, eta buruzagiek agintari baino herrihezitzaile izan behar dute.

Horretarako gobernuak ez al lukete kritika soziala bultzatu eta gobernatzearen muga pedagogia landu behar?

Ezinbestean. Ezkerra ez dago gobernatzera ohituta, gobernura iritsi arte ez du gobernatzeko politikarik hausnartu. Horregatik gaude trantsizio betean, eta trantsizioak beti dira

gatazkatsuak. Jendeak mundua goizetik gauera aldatu litekeela uste du, baina hori ezinezkoa da. Ezer baino lehen, aurreko sistemaren arau instituzionalak aldatu behar dira, baina batzuetan indar harremanek ez dizute uzten, eta hori gaizki kudeatzeak legegintzaldi erreakzionario bat ekar dezake. Horregatik, etengabe saiatu behar da aldaketa haizea sortzen, bidera ateratzen diren traba oro gainditzen, eta horretarako jendea uneoro egoera zein den azaldu behar zaio. Agintari anitz, arazoekin izututa, ez dira bulegotik irteten, arazoak komunikatzea ahultasun seinale delakoan, baina alderantziz da. Herriaren borondatea ezin asetzeak dakarren angustia herriarekin konpartitzeak ontzi bereko bihurtzen ditu denak, eta hori baino aldaketa haize indartsuagorik ez dago.



Txapiroak plantxan

Bartolo taberna - jatetxea

**Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala**

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com



Manuel Piñeiro Kubako segurtasun indarren burua zenaren emazte izan zinen, Chávezen aholkulari ere bai. Boterearen arriskuak zeure begiz ikusi dituzu.

Gobernatzen ari den ororentzat giltzarria da “opari” gaia. Horren aurkako politikak sistematizatu behar dira eta garden jokatu. Jendeak ez badaki “opari” horiekin zer egiten den, zertarako onartzen edo zergatik ukatzen diren, errezeloak sortu eta ezberdintasun sozialak areagotzen dira. Bestalde, agintarien familiak arazo bat dira. Agintari anitz errudun sentitzen dira ez dietelako ahaideei behar besteko denborarik eskaintzen, eta konpentsatzeko egun batean auto ofiziala uzten diete; hasieran larunbat batez, gero larunbatero, eta azkenean... Kasu boterearen parafernaliarekin! Gobernatzeak usteltzen duela dio erretratuak, eta ezkerreari horren aurkako segurtasun uhalak eraikitzea dagokio. Agintari bakoitzak izan behar du alertan jarriko duen nukleo bat, ez bakarrik saldukeria ekiditeko, bere jokabide oro aztertu, zaindu eta bideratzeko baizik. Ezinbestekoa da gure hitzen eta ekintzen arteko koherentzia. Boterera behin baino gehiagotan heldu liteke, baina sinesgarritasuna behin galtzen da.

Hori da ezkerre berreraikitze funtsezko oinarrietako bat?

Luzaz uste izan dugu gutxiengo aktibo batek boterea hartzea nahikoa zela jendarte eraldatzeko. Gehiengoaren babesik gabe, ordea, ezin zaiola egitasmo bati eutsi ahanztita ibili gara. Hala, hegemonia irabaztea dagokigu, jendearen buru bihotzak konkistatzea: jenderik gabe ez dago sozialismorik. Konbentzitzeko jendarte eredu alternatiboa argi izan

AZKEN HITZA

Venezuela


“Nik ere ez nuen espero Chávezen heriotzean Venezuelako herriak izan duen erreazio ereduak. Garbi dago urte gutxitan herri hori izugarri heldu dela. Geroz eta argiago dute norabidea zein den: fronte bakar eta zabala eratu, antolatuz aurrera egin eta aurrera eginez antolatu. Alabaina, ez da erraza pertsonak egun batetik bestera transformatzea, baina guretzat, Hego Amerikan, Venezuela ezinbestekoa da”.

behar dugu, baina batez ere, proiektu horrekin bat datozen jarrerak landu. Bestalde, ezin dugu etengabe mundua, haizea eta medioak aurka dauzkagula madarikatu. Agian, gu gure gizarte-eredua behar bezain ongi azaltzeko gai ez garenak. Nik garbi daukat objektiboki egitasmo bolibarianoak Hego Amerikan %85 harrapatu beharko lukeela, baina bozka-kutxetatik ateratzen den indar harremana beste bat da. Ondorioz, jarrera aldatzea dagokigu, eta gure estiloa sortzea. Eskuineko eta ezkerreko agintarien diskurtso eta estiloak hain antzekoak izateak eszeptizismo izugarria sortzen du. Hori da Hego Amerikan gauden ari garena. Azkenik, hitza bete behar dugu, efizienteak izan. Jendeak emaitzak exijitzen ditu, eta obra bat agindu badugu aitzakiek ez dute balio. Askotan, ezkerreko debate zerutiarrak hobetsi ditu, baina jendeak efizientzia nahi du.

Ezkerreko aginte organo kolektiboak behar lituzkeela adierazi duzu maiz, baina boterera iritsi direnak lider karismatikoak izan dira. Zer da, debate zerutiarra ala efizientzia kontua?

Nik bat egiten dut liderrek ezinbestekoak diren ideiarekin. Neoliberalismoak fragmentazio soziala sustatzen du. Ez zaio axola talde txiki ezberdin anitz egotea, artikulatzen direnean ikusten du arriskua. Hala, fragmentazio horri aurre egiteko behar-beharrezkoa da subjektu zatitu horiek bilduko dituen lider bat. Alabaina, lider horiek ulertu behar dute euren papera zuzendaritza kolektiboak ahalbidetzeko baldintzak ereitea dela, mugimenduen autonomia garatzea, eta erakunde parte-hartzaileak egikaritzea. Herritarren protagonismoa behar dugu. Horregatik, lider ona ez da botereari kosta ahala kosta eusten diona, etengabe bera desagertzeko baldintzak sortzen ari dena baizik. Sarritan pentsatu dut Chávezek bere heriotza data jakin izan balu askoz gehiago landuko zukeela ikuspegi kolektibo hori. Baina ez da erraza, gizarte eraldaketek epe luzeko ikusmoldea eskatzen baitute, eta arau politikoek epe laburrera pentsatzen baizik ez dute uzten. ■





dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

Dagoeneko 145 dokumental eskura

Anuken egia
Arrhash, pozoina
Banlieues. Pariseko errebolta
Basque hotel
Bidaia Intimoak
Botilen hilerria
CAN: Kutxa hutsa
Companys eta Agirre azken erbesterantz
Debekatuta dago oroitzea
Egunero
Egunkaria, hamar urte geroago
Elburua Gernika
Euskal Herria: Ezkutuko zorra
Euskararen jatorria: Enigma europar bat
Gudari baten egunerokoa
Haizea eta sustraiak
Insumisioa. 20 urte desobeditzen
Iparralde XXI

Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
Iruña-Veleiako misterioa
Itoitz hustu arte
Itsasoren alaba
Langile autonomia
Leku hutsak, hitz beteak
Nire bizi osoa espetxean
Nömadak Tx
Oroitarrria
Perurena
Pluja seca - Euri lehorra
Sagarren denbora
Sahara marathon
Salda badago
Santi Brouard. Euskal Herria Osagai. Duintasuna omen
The Yes Men fix the world
Tortura Euskal Herrian

...eta askoz gehiago

**Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu,
jarri gurekin harremanetan:**

multimedia@argia.com

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

argia.com

**EGUZKI
BIDEOAK**

elkarlanean



Ostikada matxismoari

Sistema patriarkala mantentzeko eta emakumeak kontrolpean izateko modua da emakumeen aurkako indarkeria. Izututa bizi da biztanleriaren erdia, eta “ez itzuli etxera bakarrik” gisako mezuek biktima ahul, pasibo eta menpeko bihurtzen ditu neskak, eurak bakarrik euren bizitza garatzeko gai ez bailiran. Diskurtso horri aurre eginez, norbere buruan segurtasuna hartu eta emakumeen jabekunde indibidual eta kolektiborako tresna da autodefentsa feminista.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

“AUZOAN BIZPAHIRU EMAKUMEK erasoak jasan zituzten denbora gutxian eta konturatzen zara ez dela soilik irratian entzuten duzun zerbaite, inguruan gertatzen dela. Neguan adibidez, iluntzen duenean, oinez baino nahiago dut autoan joan, edo ordu batetik aurrera leku jakinetatik ez dut paseatzen. Beldurra nire askatasuna baldintzatzen zuela ikusita, autodefentsa saio batera joatea baliagarria irudituzitzaidan”, kontatu digu Pili Vergarak, 37 urteko irundarrak. Izu horri aurre egiten laguntzeko, autodefentsa feminista ikastaroak eskaintzen ditu Maitena Monroy bilbotarrak. Emakumeenganako diskriminazioan oinarritzen den sistema betikotzen du indarkeria sexistak eta horretaz gogoetatzeko dute ikastaroak.

herritar guztientzat izan beharko luketen eskubide batzuk gizonenak baino ez diren pribilegio bilakatzen direlako, kalean lasai ibiltzea, esaterako. Monroyren hitzetan, “autodefentsa feminista munduan egoteko modua da, bizitzeko jarrera bat, ‘hemen nago ni, eta inork ez dizkit nire eskubideak kenduko, nire kabuz eta nire gorputzaren gainean erabakitze eskubidea daukat’. Horrekin batera, beharrezkoa da sistemak eskubide horiek bermatzea eta urratzen direnean neurriak hartzea, arazoa ez baita pertsonala, estrukturala baizik, egiturazkoa, eta egin beharreko bidean neurri bat da autodefentsa, baina azken buruan lortu behar duguna da jarrera matxistak eta biolentoak deslegitimatzea. Horretarako ere balio dute ikastarook, gure ingurua zalantzan jartzeko eta gogoetatzeko; emakumeek probokatzen dugula esaten denean zertaz ari garen, gizonak zer egin dezaketen... Honen guztiaurrean gizonak ez direlako besoak guru-

tzatuta geratu behar, baina emakumeak galde-tzea eta erabakitzen uztea da lehenengo urratsa, ezin du mundu guztiak emakumeon ize-nean erabaki”.

Teoria...

Autoestimua, segurtasuna eta autonomia indartzen eta norbere burua defendatzen ikas-teko, aproposak dira autodefentsa saioak. Ver-garak bere herriko Udalak antolatutako bi egu-neko ikastaroan hartu zuen parte eta bete egin zen, guztira hogeitabat emakume. “Lehenengo egunean teoria landu genuen eta interesgarria izan zen ohartzeko egunerokoan jarrera eta egoera sexistez inguratuta gaudela, sarri barne-ratuak ditugunez konturatu ere egiten ez garen

arren. Edo jakiteko, adibidez, bortxaketa gehienak ez direla gauez gertatzen, egun argiz baizik”, dio Vergarak.

Hain juxtu, sexu indarkeriaren mehatxuak leku eta ordu jakinak saihestera daramatza emakume ugari, nahiko eszenario irrealak saihestera, eraso gehienak eguneroko leku eta egoeratan gertatzen direlako, pertsona ezagunengandik. “Kontua da, bestearen desioak betetze-

ko eta norberaren desio eta eskubideei uko egiteko rola barneratua duen emakumeak zaila egingo zaiola konfiantzazko giroan emandako eraso jakin batzuei erantzutea. Xantaia emozionala edo biolentzia egoera batzuk ez ditu biolentziaz hartuko, intentsitate baxuko biolentzia mota asko normalizat jotzen baititu gure gizarteak, normala dela sinetsarazi nahi digute, baina biolentzia ez da bate-re naturala”, dio Monroyk. Horretaz guztiaz eztabaidatzen dute bere ikastaroetan, saioen %70 teoria baita, eta beste %30 praktika. Alde teorikoan jarrera sexistak deslegitimatu beha-

“Autodefentsa feminista munduan egoteko modua da, bizitzeko jarrera bat, ‘hemen nago ni eta inork ez dizkit nire eskubideak kenduko, nire kabuz eta nire gorputzaren gainean erabakitze eskubidea daukat’”

MAITENA MONROY,
Autodefentsako prestatzailea



Maitena Monroy erdian, Mujer Crecer ekimenaren baitan Nikaraguan emandako ikastaroko parte-hartzaileez inguratuta. Autodefentsako prestatzailearen arabera, "gutxirako balio dute irakatsitako baliabideek, lehenengo ez bagara gauza ikusteko maitasuntzat hartzen dugun hori ez dela maitasuna, kontrola baizik".

rraz mintzatzen dira, besteak beste. "Emakumeen gorputzak objektu bihurtuta ikusi ditugu Sanferminetan, festen parte bailiran, eta badi-rudi jaiek eta alkoholak biolentzia legitimatu ez, baina justifikatu egiten dutela –gaineratu du Monroyk–, 'mozkor zegoen gizajoa...' diote; edaten duzunean biolentzia bazara, ez ezazu edan, eta kito". Are gehiago, "begira nola doa-zen jantzita, gero kexatu egingo dira" gisako esaldiek emakumeari berari egozten diote eraso-oen errua, beste behin ere biolentzia justifikatu-tuz. Nagore Laffageren erailketaren epaiketan, adibidez, abokatuak haren amari galdetu zion ea Nagore "oso promiskuoa" ote zen. Ondorio zuzena zein da? Sexu indarkeria jasan duen makina bat emakumek ez duela salaketarik jar-tzen, oraindik ere emakumeen-tzat estigma modukoa delako, eraso eragin duen zerbait egin balute bezala.

Maitena Monroy ikastaroa ematen daraman 25 urteetan, 12 eta 88 urte arteko 15.000 ema-kume inguruk hartu dute parte, profil anitzekoak. Seguruago sentitzeko xedez gerturatu ohi dira, edo bikote harremanetan bestearen esanetara errendituta bizitzea nola moztu daitekeen jakin nahian. "Euskal Herri-ko herri txiki batean, 16 eta 50 urte arteko hamalau emakume etorri ziren saiora; horietatik hamabik indarkeria psikologiko eta fisiko gogorrak jasanak zituzten. Autodefentsa ikas-tarotetan kontatzen dituztenak mundua lotsa-razteko modukoak dira".

Muturreko indarkeria baino ugariagoak dira intentsitate baxuko eraso sexistak. Nola erantzun afarian izterra lastandu dizun mahaikideari? Bularretara begira adi-adi duzunari?

... Eta praktika

Bortxatzen edo erasotzen saiatzen badira, nola jokatu? Hori ere lantzen dute autodefentsa saioetan. Gorputza nola jarri eta zein jarrera hartu ikasi zuen Pili Vergarak. "Irakas-leak esaten zigun ez genuela indarririk egiten, eta arrazoi zuen, kostatu egiten zaigu indarra kanporatzea, ez gaude ohituta, baina pixkana-ka konfiantza hartzen zoaz, barne indarra aterratzen". Biolentziari aurre egiteko, biolentzia da irtenbidea? "Defendatzeko aukera beharrezkoa da. Jo edo hil egin behar bazaituzte, defendatzea zilegi da, eta horretarako irakas-ten ditugu baliabide fisikoak", argudiatu du autodefentsako prestatzaileak. Joka hasi aurretik, halere, baliabide ugari daude mutur-reko erasoak saihesteko, 'sua!' oihukatzea adibidez, jendearen arreta deitzeko. Solaskideek ez dute baliabide gehiago jakinarazi nahi izan, erasotzaileen belarrietara ez iristeko ahalik eta gutxien zabaltzea baita asmoa.

Egunerokoa, muturreko indarkeria baino ugariagoak dira intentsitate baxuko eraso sexistak. Horiei aurre egiteko tresnak ere ematen ditu autodefentsak, biolentzia fisi-koaz baliatu behar izan gabe. Nola erantzun min egiten duten komentario matxistei? Afarian izterra lastandu dizun mahaikideari? Trenean bularretara begira adi-adi duzun pareko bidaiariari? Tabernan komunera bidean ipur-dia ukitu dizunari?... "Trainaren aurrean, esa-terako, mugak jarri behar dira, pentsatu beha-

AUTODEFENTSA

rrean zergatik iraindu ote nauen edo zer esan ote diodan nik lehenago. ‘Oso harro egongo zara egin duzunaz’ esan eta alde egitea izan daiteke aukera bat”, bistaratu digu Monroyk.

Prestatzaileak bost urratsetan oinarritzen du autodefentsa: lehenengo, gertatzen ari dena definitu (norberaren irizpidean konfiantza izanez); gero, eskubidedun subjektu naizela sentitu, eta ez objektu; norberaren burua maitatu eta baloratu; eskubideak ditudala barneratu (nahi dudak lekuan egoteko eskubidea, biolentziarik ez sufritzekoa...); eta azkenik, eskubide horiek praktikan jarri (nahiz eta horretarako beharrezkoa litzatekeen sistemak berak ere bermatzea emakumeen eskubideak). “Hortik abiatuta –azaldu du Monroyk–, egoera jakinen aurrean nola jokatu lantzen dugu, baina gutxirako balio dute baliabideek, lehenengo ez bagara gauza ikusteko maitasuntzat hartzen dugun hori ez dela maitasuna, kontrola baizik. Errespeta eskatzen dugu, ez besterik”.

Beldurra vs. izua

Normaltzat jotzen ditugun hainbat egoera gaitzesgarriak direla ohartzeko balio izan dio ikastaroak irundarrari. Baliabideak bereganatu ditu eta ikastaroa urtero errepikatzea pentsatzen ari da, jarrera praktikoak birgogoratzeke. “Pertsona bezala, segurtasuna irabazi dut, baina inoiz ez dakizu unea iristen denean nola jokatu duzun... Beldurra ez dut guztiz galdu, nahiz eta prestatuago ikusten dudana nire burua, batez ere intentsitate baxuko indarkeria kasuei aurre egiteko”. Hain zuzen, prestatzaileak argitu digunez beldurra ez da inoiz galdu behar, “izua da galdu behar dena. Beldurra erre jartzen gaitu arrisku egoeren aurrean, baina izua ez da ona, blokeatu egiten gaituelako. Eta nik uste autodefentsa saioekin lortzen dela izua galtzea, kasu zehatzak aztertuz ikasten dugulako horiei zein modutan egin diezaiekegun aurre”.

Autodefentsa ez da aski, ordea. Solaskide biek bat egin dute: hezkuntza funtsezkoa da, txikitatik. Neskei autodefentsa irakastea, bai, baina batez ere neska nahiz mutilak balore ez sexistetan hezteak. “Gazteak oso matxistak omen dira, sinesgaitza! Horrek esan nahi du heziketan zerbaitek huts egiten duela, umeak barneratzen duelako etxean ikusten duena, eskolan, telebistan... eta hori guztia zaintzen ez bada, gerora ondorio kezagarriak izan ditzake”, uste du Vergarak.



Autodefentsa ikastaro batean parte hartu zuen Pili Vergarak. Pertsona bezala segurtasuna irabazteko balio izan zion, baita egunerokoan jarrera eta egoera sexisteiz inguratuta gaudela ohartzeko ere, “sarri barneratuak ditugunez konturatu ere egiten ez garen arren”.

Instituzioetatik lan asko dagoela egiteke gaineratu du Monroyk. “Kasu jakinetan sorospena ongi dago, baina emakumeen aurkako indarkeriari modu orokorrean egin nahi badiogu aurre, ikuspegi globala behar dugu, jatorria emakume eta gizonen arteko ezberdintasunean dagoela ulertu, eta ezberdintasun horiek ezabatzeko neurriak bultzatu”. Biktimak ahul eta pasiboaren estigma ere kendu beharko litzaieke emakume hauei. Tratu txarrak daudenean,

esaterako, zergatik jarri bizkartzaina emakumeari? Zergatik jasan behar du biktimak kontrola, eta ez delitua egiten duenak? “Ez dut uste emakumeak biktimizatzen direnik –dio prestatzaileak–, emakumeak biolentziaren biktimak baitira, baina beste biktimak politikoentzat egiten den kategorizazioa ez da hauekin egiten, eta indarkeria sexistaren biktimak ere biktimak politikoak dira. Instituzioetatik utzi egin beharko liokete emakumeak biolentziaren aurrean objektu pasibo gisa erakusteari. Emakume hauek ezereztu beharrean, euren jabekunderako bidea erraztu”. Eta duela gutxiko adibidea jarri digu Maitea Monroyk: Ertzaintzak 2012ko txostenean dio biolentzia matxista dela bigarren delituen salatuen, eta ematen duen gomendioa da parranda baten ostean neskak ez daitezela inoiz etxera bakarrik itzuli. “Emakumeok ezin garela bakarrik egon, horrek arriskuan jartzen gaituela, horra helarazten den mezua, baina izua sortzea ez da irtenbidea, espazioak seguruago bilakatzeko neurriak hartu beharko lituzke Ertzaintzak, eta indarkeria kasuak daudenean esku hartu. Gizonek eskubidea dute kalean bakarrik ibiltzeko eta beldurrik ez izateko, emakumeok ez dugu eskubide hori”.

Izuagatik, gauza asko bizitzeari uko egiten dio emakume ugari, eta ukorik ez egitea, bizitzari uko ez egitea da matxismoari eman dakioken erantzunik ozenena. Hala diosku Maitea Monroyk, Boliviako emakumeen lema gogoan: “Gure zoriontasuna izango da gure mendekua”. ■

Hiri Debekatua

Hiriko puntu arriskutsuak adierazten dituzten mapak egin dituzte hainbat udalek, “eta diagnostikoa egitea beharrezkoa da –dio Maitea Monroyk–, baina diagnostikoan geratuz gero ez du ezertarako balio, leku horietan emakumeek gizonarekiko berdintasunean lasai ibiltzeko aukera izan dezaten neurriak hartzeko tresna izan behar dute, aldaketak bideratzeko eta espazioak herritar guztientzat seguru bihurtzeko”.






EUSKAL ADMINISTRAZIOAN, GOI-KARGUAK
ENPRESA PRIBATUA PASATZEN DIRA
HAGINTALDIA BUKATZEN ZAIENEAN...



EUSKAL PRENTSAN, ARGIA PIZTEN
JARRAITZEN DUTE ZUZENDARI OHIEK
EGUNEZ EGUN...





DANI BLANCO

Garbiñe Biurrun Mancisidor



EHUKO

IRAKASLEA,

EPAILEA

Udazken hotza

BADAKIT uda estreinatu berria dugula eta asko kostatu zaigula honaino iristea, arlo guztietan. Badakit gutako asko ez garela oraindik oporretara joan. Badakit, baita ere, jende askok ez duela oporrik izango, lanik ez duelako. Beraz, beharbada, estilo gutxikoa izan daiteke udazkena aipatzea uztailean gauden bitartean.

Baina, nire iritziz, behintzat, aipatzera derrigortuta gaude; aipatzera eta prestatzera. Zeren eta, datorren udazkena beroberoa izango da. Edo, hobeto esanda, hotz-hotza: zero azpitik izan daiteke eskubide sozialei dagokienez. Jendea zain dago eta antzematen da: hainbatek eta hainbatek aipatzen didate lan edo gizarte auzitegietan irailetik aurrera izango dugun lan berezia –berezia kopuru eta izaera aldetik– edota sortzen ari den egoera berria. Eta, dirudienez, horrela izango da, bai, inork ez badu konpontzen handitzen ari den gatazka soziala.

Hainbatek eta hainbatek aipatzen didate lan edo gizarte auzitegietan irailetik aurrera izango dugun lan berezia –berezia kopuru eta izaera aldetik– edota sortzen ari den egoera berria. Eta, dirudienez, horrela izango da, bai, inork ez badu konpontzen handitzen ari den gatazka soziala.

Hitzarmen kolektiboez ari naiz, alde batetik. Hitzarmen kolektiboen sistema tradizionalaren heriotzaz, hain zuzen ere. 2010ean hasiera eman zitzaion lan erreformaren azken pausoa –atzera pausoa–: batzuek hasiera eman zioten erreformari eta besteek amaitzen ari dira. Arau berrien ondorioz, denok dakigunez, hitzarmen kolektiboek beren “ultra-aktibitatea” galduko dute alderdiek hitzarmena salatzen dutenetik urtebete igarotzen bada hitzarmen berria lortu gabe.

Panorama guztiz berria da eta, egia esan, inork ez daki zer irtenbide eman

behar zaion. Inork ez. Ez enpresaburuek, ez sindikatuak, ez epaileok... Inork ez. Dagoeneko, badakigu enpresa batzuetan lan baldintzak aldatzen –jaisten– hasi direla eta berehala planteatuko direla lehen demandak auzitegietan. Ez dakiguna da zer-nolako erantzun juridikoa emango zaion, baina ezta zer-nolako erantzun soziala jasoko duen ere egoera berri honek. Zeren eta, nola onar dezakegu gure lan baldintzak atzeraka doazela eten gabe? Nola onartu egoera honetan, egunetik egunera, denok pobretzen ari garela eta, gainera, enplegua sortu beharrean, oraindik egunero galtzen ari dela? Batzuek lana galdu dute, beste batzuek ez dute inoiz lanik izan eta denok galdu ditugu horren kostata irabazitako eskubideak.

Baina udazkenak beste trumoi soinu dakar, bai. Pentsioen erreformaren azken atzera pausoa baita ere: Espainiako Gobernuak adierazi du pensioen jasagarritasun faktorea definitzeko lege proiektua irailean aurkeztuko duela. Horrela esanda, “jasagarritasun faktoreak” ez dirudi oso arriskutsua, baina adi, adi. Gauza onik ez da ekimen horretatik espero behar, ezta ere. Udaberrian ezagutu genuen hainbat adituk egindako pensioen erreformari buruzko txostena eta, gogoan baduzue, ondorioak garbiak ziren: pensioen sistema ez omen da jasagarria. Argi dagoena da, beraz, zalantzarik gabe, neurri honekin ere, pensioak “hoztu” egingo direla, nahiz eta oraindik ez dakigun noraino.

Udazkena ez da beroa izango, ez; oso hotza baizik. Hozten ari dira lan baldintzak, hozten gure itxaropenak eta aukerak, hozten gure kementa. Eta zer egin horren aurrean? Bada, hotzaren aurka egiten duguna: ondo jantzi, gure etxea babes-tu, egurra bildu, gure jendearekin elkartu eta, besotik helduta, aurrera egin eta egoera epelagoa sortu. Hobe dugu lehenbailehen hastea lan horretan zeren eta, udazken hotz horren ondoren, negu gorria etor daiteke. ■



INIGO AZKONA



Rosa Maria Martin Sabaris

EHUKO IRAKASLEA ♦

Zoriontsu izateko erabakia

HEDABIDEETAN irakurritakoak eta inguruko lagunak kontatutakoak sorrarazten didan atsekabea gainditzeko asmoak bultzatu nau izenburu hori jartzera. Amaitu da etsipena, akabo orain arte idatzitako esaldi beltzak, akabo kopeta iluntzen didaten lerroak. Jarrera baikorra izatea betebeharrak morala dela uste dut. Baikortasunean tematzea ezinbestekoa zaigu aurrera egin nahi badugu. Kazetarien eginbehar mesianikoetakoak irtenbideak erakustea da. Eta horrela, sekulako sarraskiak eta hondamendiak erakutsi eta gero, jarrera positiboa izan behar dugula esaten digute: langabeziatik ihes egiteko enpresa bat nola sortu, elbarritu eta gero non kirola egin, bikotekidearengandik banatutakoan norekin ibili, edota erakunde publikoen diru laguntzarik gabe nola erabili betiko diru-bilketa, *crowdfundinga* alegia.

Erresilientzia, ezbeharretatik indartuta ateratzeko gaitasuna. Etengabe ari zaizkigu errezetak ematen. Norbanakoen kasuan eta baita jendarteenean ere. Horrela ulertzen ditut Foro Sozialaren 12 gomendioak. Herri honek ezbeharretatik indartuta irteteko abagunea izan behar du, eta gomendio horiek ez dira nahikoa izango, baina ezinbestez eman beharreko pausuak dira.

Kazetarien eginbehar mesianikoetakoak irtenbideak erakustea da. Eta horrela, sekulako sarraskiak eta hondamendiak erakutsi eta gero, jarrera positiboa izan behar dugula esaten digute

Makalaldietan, erresilientziari buruzko diskurtsoa boteretsuen koartada hutsa dela pentsatzeko tentazioa daukat. Boteretsuek indartsu nahi duela ikusi boteririk gabea, hori baino ez. Heriotza zigorraren bezperako afaria. Baina, tira, zorionaren bila hasteko agindu diot neure buruari.

Australia omen da herririk zoriontsuena. Hala omen dio Lankidetzeta eta Garapen Ekonomikorako Erakundeak egindako ikerketa batek. Segur aski ekonomia soilean oinarrituta lankidetzan baino gehiago: etxebizitza, diru-sarrerak, enplegua, parte-hartze publikoa, heziketa, ingurugiroa, segurtasuna, aisialdia... horrelako irizpideak hartu dituzte kontutan. Lekutan dago Australia. Rousseau inozoak, aitzitik, herrik zoriontsuena Gernika zela idatzi omen zuen. Lekutan Rousseau ere. Inoiz ikusi ditudan umerik zoriontsuenak Saharako kanpamentuetan ikusi ditut, zinez.

Baikorra izateko erabakia hartuta, zoriontasunaren bila jarraitu dut. Eta hara non topatu dudana: Zoriontasunaren Institutua. Torlojuen herdoila bezala arazoak desagerrarazten dituen formula. Zoriontasunaren Coca-Cola Institutuak (*The Coca-Cola Company*) erregistratutako marka. ■



DANI BLANCO



Amets Arzallus

♦

BERTSOLARIA

Esanahia

IRAULTZA guziak hiztegitik hasten direla ez da nik asmatua. Hitzen jabetza duenak dominatzen duela mundua ez da nik asmatua. Batailarik handienak semantikoak direla ez da nik asmatua. Adibide bat nahi duenak hor du terrorista hitza. Orain arteko guzia ez da nik asmatua. Hitzek beti badute jaberena bat, eta ideia gehienek ere bai.


Hemendik aurrerakoak nik asmatuak dira, baina jabetzeko inolako asmorik gabe; terrorista hitza atzeman zuenak, eta Guantanamo eraman, mundua besapean hartu zuela, adibidez.

Erdaraz “*sens*” esaten da, edo esan daiteke “*definition*”, baina euskaraz esanahia diogu. Eta, ez idurian, horrek zerbait esan nahi du. Esan nahi duenak esan ezin duela du esan nahi. Hitzen esanahiak esan nahi duena da hitzak ez direla libre, bat edo batek preso dauzkala, antzaldatu egin dituela, totalka mintzo direla, ezin dutela. Euskarak salatua uzten du mundu honetako hitzen zentzugabekeria, bere hitzen esanahiarekin, eta bere esanahia hitzarekin. ■



Beñat Sarasola

♦ IDAZLEA



Egan-en itzuleraren alde

AITOR DUT, ni ere Eganen hainbat kasete edukitakoa naiz. Buruz ari naiz —duela urte batzuk libratu bainintzen haiez—, baina esango nuke gutxienez *Egan* eta *Erromerian* eduki izan nituela. Txikitan halakoak entzuten nituen euskaraz Negu Gorriak eta gainontzekoak ailegatu zitzaizkidan arte; orduan etorri zen Egan-ekiko erdeinua. Boladak izaten dira, badakizue; nagusitu ahala iraganeko etapak despreziatu behar.

Bolada oro itzultzen da gutxien espero duzunean, ordea. Eta halaxe gertatu zait berriki lagun bati esker Egan eta Ariel Pink-en antzekotasunaz jabetu nintzenean. Berehala pentsatu nuen: Ariel Pinki alabantzak eta Egani ordea destaina. #Doblerasero. Musikalki bata eta bestearen arteko distantzia ez denez alimalekoa, Pinken arrakasta aprobetxatuz promozio eta komunikazio kanpaina egoki batek Egan *revival* gogoangarri bilaka dezakeela bururatu zait. Duela bi urteko Alaitz eta Maiderren itzuleraren aldeko kanpaina ustelaren ostean, bada, Eganen aldekoa sustatu nahiko nuke aurtun.

Izan ere, ongi pentsatuta, Eganek arrakastaren uberara itzultzeko osagai guztiak ditu. Esan bezala, historiaren jira eta birek beren ekoizpen eta konpoketa, nola esan, pastosoak, modan ipini dituzte atzera. Bestalde, inor gutxi izan da gauza euskal musikan Eganeko gitarren tamainako soloak (entzun *Zeren maite zaitut*) egiteko. Brian May harro sentitzeko modukoak, alajaina. Zer esanik ez koroak, teklatu espazial eta baxujo-tzailearen slap estratosferikoak. Tradizioa eta abangoardiaren uztartzaile nekaezin, beti egon izan dira berrietasunerako gertu: “DJak plazan sartu dira, eta jendeari bost inporta zaio zeinek jotzen duen edo zein musika tresna dauden; jartzen

duen giroak bakarrik axola du. Itxuraz arreta handiagoa jartzen zaie dantzariari eta ikuskizunari, musika jotzeari baino. Horregatik, joera hori ikusita, formatua aldatu dugu”. Hausnarketa hartatik etorri ziren taula gaineko *basque-gogó* moduko haiek.

Eklektizismo garaiotan, estilo ugaritan moldatzeko gaitasuna, gainera, aski akreditatua dute. Gehienak bertsioak direla? Baita *Sarri Sarri* ere eta inor ez da kexatzen horregatik. Batzuk *truñotzar* galantak direla? Etxe onenetan jazotzen da. Baina hor daude hit ezin ukatuzkoak orobat: *Lo ez Mexicon* ahaztezina, *Gau ilunaren* groovea, *Denok dantzara*-ren letratzarra (Aizkolaria nahi nun izan / baina ez neukan nahiko indar), *Ikuskizunak jarraitu behar du* paregabea, non *Show Must Go On!* sonatua *Zu maisu on!* bihurtzen baita.

Alabaina, ezeren gainetik zerbait nabarmentzekotan *frontmana* aipatu beharko genuke zalantza izpirik gabe: Xabier Saldias, Urolako tigrea.

Haren eszenatokiaren, espektakuluaren, meneratzea, ezta Michael Jacksonek haren garai onenetan.

Tamalez, jakingo duzuenek, musika taldeetako ohiko barne-istiluak medio, bitan banatu zen Egan duela pare bat hamarkada: Trabuko (sic) eta Egan Berria. Uste dut bade-la unea, bizi ditugun garai berri bezain itxaropentsuak lagun, behialako ika-mikak alde batera utzi eta bigarren aukera batekin saiatzeko. Ez zait bururatzen gure bake prozesurako Egan baino soinu banda ego-kiagorik. Seguru Gorka Maneioren bihotz gotortua ere beratzeko gai dela.

Noizbait entzun izan dudanez, BBK Live jaialdia dirutza bat ordaintzeko prest egon izan da Hertzainak-en itzulera lortzeko. Ez dugu ezer Hertzainaken kontra, jakina, baina Euscool Herriak jakin nahi duena zera da: zenbat jartzeko prest zaudete Eganen itzuleraren alde? ■



Antton Olariaga





Nahia Alkorta Elezgarai

♦ ARGIAKO BLOGARIA

Haurra negarrez dagoenean, bakarrik utzi?

BITXIA egiten zait heldu bat negarrez ikustean ingurukoek babesa eman eta lasaitzen saiatzen igarotzen duten denbora eta hartzen duten ardura ikusi ondoren, euren haurrak negarrez egon eta jaramonik egiten ez dien gurasoen aurrean egotea. Bitxia eta gogorra, oso gogorra.

Haurrek, eta batez ere, txikienean, ez dute kapritxo negar egiten. Behar bat dutelako egiten dute negar, eta behar hori komunikatzeko bidea negarra dutelako. Normalean gosea, egarria, hotza, beroa, fardel zikina, gosea, logura, mimo beharra, mina, babes beharra, kontaktu fisiko beharra edo bestelako arrazoiren bat izango da eta beraiek behar hori asetzeko gai ez badira, normala da laguntza eskatzeta. Ezin dugu espero bere eskaerekin email edo SMS bat bidaliko digutenik.

Negarra oinarri-oinarrizko komunikazio tresna da, eta komunikazioak funtziona dezan, negar horren hartzaileak negar hori entzun, aztertu eta beharra ase behar luke. Bularra ematen duten amek, euren haurtxo jaioberria (edo koxkorxeagoa –niri urtea betetzear dagoenarekin gertatzen zait–) negarrez entzutean bularrak minbera jarri eta esnea jariatzaren hasten dira. Beste zenbait espezieetan ere ikusi dute erantzun automatiko hori.

Azken urteetan ordea, negarrez uztearen aldeko

ahotsak zabaldu dira. Horrelako gomendioak ematen dituztenek haurrak gaizki heziko ditugula, mimatuak izango direla, kapritxoak besterik ez dela eta horrelako arrazoiak erabiltzen dituzte. Haurtxoek, jaiotzetik helduak izorratzeko asmo eta gaitasuna izango balute bezala.

Negarra oinarri-oinarrizko komunikazio tresna da, eta komunikazioak funtziona dezan, negar horren hartzaileak negar hori entzun, aztertu eta beharra ase behar luke

Guk ez dugu uste horrek mesede egiten dionik inori. Ez haurrari, ez negarra entzuten duen inori ere. Gainera, geroz eta ikerketa gehiagok erakutsi dute, haurtxoei negarrez egoteak sortzen dien estresak epe luzerako eragina dutela (autoestima arazoak, harremanetarako arazoak, mesfidantza...). Esan bezala, haurtxoek behar bat dutelako egiten dute negar, eta behar hori asetzeari berehala isiltzen dira. Bakea denontzat. Hortaz, zergatik utzi negarrez? ■



BERTSO BERRIAK

Uxue Alberdi
Estibaritz



Doinua: Naufragoarena.

Denontzako jaiak

Txanpain botilak, kopak, trpuak, drogak, pankartak, dantzak, kantuak... Baina kamerak “zoom in” egin du. Utzi ditu fokatuak eme desenfokatuak: kamiseta urratuak, bular eskuz zanpatuak ipurmasail kolpatuak... txaranga-doinuz dantza egiten al du patriarkatuak, irribarreek estal ditzaten gorputz subordinatuak?

Batzuek ozen diote “alde!”, askok burua jiratu suabe... Pixa egitera ere binaka joaten gara bazpare... (libre ustean halare). Baina hain ohituta gaude, azter gaitzaten goi ta behe sarri konturatu gabe. Ohartu gabe uzkuertzen diren gure gorputzei galde! Emakumeok ondo dakigu: eskuak beti hor daude.

Menorkan edo Euskal Herrian; Tahrir-en edo Plaza Barrian; emakume ta gizonak gaude desberdintasun gorrian, egunen joan etorrian. Hamaika esku gerrian, zirri hemen ta zirri han lerre zuria irrian... Lujanbiori aditu nion galdera dut eztarrian: “zer, arazo hau baldin balego beste denen oinarrian?”. ■



Oporretan gozagarri

ARGIAko erredaktore eta kolaboratzaileen gustuko proposamenak bildu ditugu orriotan, irakurgaiak, kontzertuak, erakusketak, poesia errezitaldiak eta beste, aldizkari honen alerik jaso gabe pasako duzun hilabeteen lagungarri izango zaizulakoan.

Euskal Herriko musikaren testigantza grafikoa

KONTZERTU ugari utzitako momentu ahaztezinak bildu zituen Jon Urbek, Ikor Kotx ezizenez. Begiak, senak eta abileziak ehizatutako 200 bat une dira, Gaztelupeko Hotsak-en KajoitxuBaltza sailak argitaratuak.

1986tik 2006ra bitartean eginak diren argazkien artean perla galantak aurki daitezke: Etsaiak taldekoak kontzertu batean gurutze handi bat erretzen, Negu Gorriak kamioi batean Donostiako epaitegi

aurrean jotzen, Kuraiako abeslaria gitarra kaxa baten gainean zutik ikusleentz gainean surfean, BB King bi eskuak belarrietara eramanda gustura irribarrez, Hertzainak edo Delirium Tremens taldeen argazkiak, Ice T rape-ro amerikarra sorbaldan ikurrina jarrita eta Fermin Muguruzarekin Zaldibian abesten, buru atzean duen argiagatik aingerutxoak ditudien La Pollako Evaristo, Niko Etxart ke artean, The Wailers-ekoak Hernanin, RIP, Sorkun, Tijuana in Blue, Manu Chao, Exkixu, Iggy Pop, Berri Txarrak, Deabruak Teilatueta...

Gehienak zuzeneko kontzertuetan ateratako fotoak diren arren, taldeen erretratugile aparta da Kotx. Horren adibide ditugu hainbat talderen diskoe-

tan ageri diren argazkiak: Kojon Prieto y los Huajalotes komikoak edo marihuana landare artean King Mafrundikoei ateratakoa kasu.

Liburuaren parterik garrantzitsuenak zuri beltzeko eta koloreta-ko argazkiok badira ere, hainbat pertsona ezagunen hitzak ere irakur daitezke aitzin solas gisa. Tartean, Fermin Muguruza, Ion Garmentia "Txuria" eta Iker Barandiaran.

Lan bikaina egin zuen Kotxek. Ziurrenik, denboraz balioa irabaziko du gainera. 1990 eta 2000ko hamarkadetan Euskal Herrian izan den panorama musikal oparoaren argazki orokorra da. ■

Lander Arbelaiz

ARGAZKIAK

Rock&Klik!
Euskal Herrian
Ikor Kotx

Paper Hotsak / KajoitxuBaltza,
2006



MUSIKA



No More Tour

FERMIN MUGURUZAREN *No More Tour* birak azken geldialdiak eskainiko ditu abuztuaren 30ean Miarritzeko Atabal aretoan, eta 31n Tolosako Bonberenean. Berrogeita hamar agerralditik gora egin ditu munduan, batzuk gugandik gertu –Ondarroa, Durango, Donostia, Lekorne, Bilbo, Irun, Atarrabia–, beste zenbait hagitzen urrun –New York, Ramala, Zurich, Tokyo, Beijing, Los Angeles, Montevideo, Bogota...–.

Kontzertuak baino gehiago, festa burrundatsuak dira Muguruzak eta konpainiak eskaintzen dituztenak: musikari handien kolaborazioak, lagun saldoa ohol-tzan, dantza giroa, aise errotzen diren doinu eta hitzen magia airean, kasu honetan, 30 urteko ibiliak dakarren historia nostalgikoaz zipriztinduta. Galdu nahi ez nukeen hitzordua. ■

Garbine Ubeda
Goikoetxea

BERTSOLARITZA

Herriz herri, bertso egarri

BERTSOEN DENBORALDI BETEA da uda. Aurtengoa, gainera, udazkenean abiatuko den Euskal Herriko Txapelketaren aurre-denboraldia izaki, sasoiaren jartzeko probaleku ere izango dira festetako era guztietako saioak: errima eta teknika finduak, doinu eta neurri bereziak eta gainerako txiribuektak entzuteko aukera ugari-tuko da, entzuleen gozagarri. Perlen atzetik plazaz plaza ibiltzen diren entzule finen agendetan urteroko hitzordu diren saioen hautaketa bat duzu hemen:

● **Abuztuko ostegun guztietan Hazparnen.** Bob's Beer ostatuan 19:30etatik landa. Aldiro bi bertsolari ezberdin.

● **Abuztuak 1, Erromon.** Urteroko jaialdia, Santa Eugenia plazan 20:30tan: Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Onintza Enbeita eta Imanol Uria. Herriko jaietan bertso poteoa ere egiten da urtero; aurtun 3an izango da, 17:00etan Santa Eugenia plazatik hasita: Jone Uria eta Gorka Ostolaza ariko dira.

● **Abuztuak 3, Beran.** Triki poteoa kalez kale, 12:00etan Herriko plazatik hasita. Bertsotan Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus ariko dira.

● **Abuztuak 4, Larraulen.** Plaza bete jende biltzen duen festetako jaialdian Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Uxue Alberdi eta Iker Zubeldia entzungai, 18:00etan.

● **Abuztuaren 5etik 9ra, Gasteizen.** Andra Mari Zuriaren festetan, egunero egiten da lau bertsolariko jaialdia Aiotz plazan, 13:30tan. Adibidez, abuztuaren 6an Andoni Egaña, Ruben Sanchez, Orlando Arreitunandia eta Julio Soto ariko dira. Haurrentzat ere izango da emanaldirik, abuztuak 9an,

12:30etan Ama Birjin Zuriaren plazan: "Bikokote" bertso antzerkia.

● **Abuztuak 6, Zumaian.** *Bi arreba* emanaldi berezia, 20:00etan Aita Mari aretoan. Andoni Egaña eta Xabier Lizaso pianojoleak Chopin eta Xenpelarren arrebak ekarriko dituzte oholtzara.

● **Abuztuak 7, Aian.** Zale amorratuaren urteroko saioa dema-plazan 22:00etan. Xebastian Lizaso, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Xabi Paya, Iker Zubeldia eta Arkaitz Estiballes ariko dira nor baino nor.

● **Abuztuak 12an, 14an eta 16an, Donostian.** Aste Nagusiko jaialdiak, 12:00etan Easo plazan. Horien artean, 14an Maialen Lujanbio, Jon Maia, Alaia Martin eta Unai Gaztelumendi ariko dira. Hauez gain, 14an musikarekin jolasten duen "Bat Batean" emanaldi berezia eskainiko dute Oskar Estangak eta Odei Barrosok, 23:30etan Konstituzio Plazan.

● **Abuztuak 13, Leitzaan.** Festetako jaialdia egingo da plazan 18:00etan. Julen Zelaieta, Maialen Lujanbio, Agin Rezola eta Anjel Mari Peñagarikano ariko dira.

● **Abuztuak 15, Gernikan.** Anfiteatroan, 19:00etan hasita. Julio Soto, Erika Lagoma, Uxue Alberdi eta Xabier Enbeita.

● **Abuztuak 15, Zizurkil Goian.** 30 urtetik gora dituen saioa, frontoian 23:00etan. Jexux Mari Irazu, Amaia Agirre, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus

eta Jon Maia ariko dira kantuan eta hamaikagarrenez, Igotz Alkorta gai jartzen.

● **Abuztuak 17, Laudion.** "Ez da kasualitatea" generoa kantagai duen emanaldi musikatu berezia. 21:00etan txosnagunean ariko dira Uxue Alberdi, Ainhoa Komasa, Onintza Enbeita eta Izar Mendiguren.

● **Abuztuak 18, Donamarian.** Egun pasa berezienetakoa. Herri bazkaria izango da urtero legez frontoian eta bazkalondoa komentura joango dira denak mojak bisitatzen. Ez dute lehen aldia Amets Arzallus eta Aitor Mendiluzek. Mojek petrillaz bestalde kantu batzuk eta pastak eskaintzen dituzte.

● **Abuztuak 18tik 25era, Bilbon.** Aste Nagusiko festetako saioak egunero 13:00ean Santiago Plazan. Lehen egunean Odei Barroso, Oihana Bartra, Xabier Silveira eta Iratxe Ibarra ariko dira.

● **Abuztuak 24, Hondarribian.** Santiago plaza bete biltzea espero da 20:00etan, Sustrai Colina, Alaia Martin, Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi entzutera.

● **Abuztuak 31, Larrabetzun.** Xabier Amuriza eta Xabi Paya librean, 13.00ean hasita.

● **Abuztuak 31, Erandion.** Udaltxeko plazan 20:00etan entzungai Beñat Vidal, Igor Elortza, Amets Arzallus eta Miren Amuriza. ■

Estitxu Eizagirre



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

ERAKUSKETA

Donostia 1813: nola irudikatu sufrimendua?

DONOSTIAKO SUTEAREN bigarren mendeurrenean, erakunde publiko eta elkarteek gertatutakoa oroitzea dute helburu eta hortxe koka dezakegu San Telmo Museoko 1813. *Donostiaren setioa, sutea eta berreraikitzea* erakusketa. Hiru multzo eta bederatzi ataletan banaturik dago —bi atal Untzi Museoa daude ikusgai— eta artelan garaikideak, grabatuak, dokumentu historikoak eta beste euskarri askotako objektuak topatuko ditu bisitariak erakusketan barrena.

Donostian 1813an jazotakoaz, orain arte nagusiki kontatu izan digutena da ingelesek su eman eta horren ondoren donostiarrek hiria berreraikitze erabakia hartu zutela. Abuztuaren 31ko gau hartan ehunka lagun erail eta beste ehunka emakume bortxatu zituzten aliatuek —basakeria horren lekukotasunak argitaratu genituen ARGIAren 2.377. zenbakiko erreportajea—, baina datu horiek itzalean geratu izan dira ia



Donostiarren
sufrimendua
irudikatzeko
Goyaren obrara
jo behar izan dute.
Si resucitará?
estampa.

beti, eta gizarte zibilaren sufrimendua barneratzeko zailtasunak ditugu oraindik. San Telmo Museoko erakusketan ere muga hori suma liteke, antolatzaileek beraiek aitortuta —“zaila da gertakari latz horiek ikuskitzun bihurtzea”—; batik bat Goyaren obra gorenera jo behar izan dute, laburrean bada ere donostiarren oina-zea irudikatzeko. Bistan da mendeurrena igaro ondoren, herritarrengandik hurbilago dagoen kontakizuna lantzeko premiak hor jarraituko duela.

Nolanahi ere, 1813ko gertaera eta testuingurua hobeto ulertzeko aukera paregabekoa da erakusketa, eta bide batez, ikuspegia kronologian zabaldu liteke Baionako Euskal Museoa eta Zumalakarregi Museoa antolatutako erakusketa banarekin; lehenak 1893ko Konbentzio Gerra eta iraultza du oinarri, bigarrenak 1823ko “Luisen ehun mila semeen” inbasioa eta kontrairaultza. ■

Urko Apaolaza Avila

ERREZITALDIA

Anjel Lertxundik eta
Antton Valverdek
sortua da 3 eleak:
Lizardi, Lauaxeta,
Lete emanaldia.



Joan zen uda

ABUZTUA joango da bere olatu usainarekin, eta airea hasi orduko janzten hozkirriz eta hosto horitzen hasi berriz, zita bat izango duzu poesiarekin Donostian, Victoria Eugenia Clubean. Euskal Idazleen Elkarteak eta Donostiako Udalak antolaturiko *Poesia Orduak* beti kalitatezkoan programatu dituzte 3 eleak eta *Tenpora*.

Irailaren 3rako Anjel Lertxundik eta Antton Valverdek sorturiko 3 eleak: *Lizardi, Lauaxeta, Lete* emanaldia dago iragarrita. Hari musikal bat izango da, euskal literatura zeharkatzen duena, XX.

mendeko hiru idazle handirekin. Valverdek sobran daki Lizardi eta Lauaxetaz. Esango nuke, neurri handi batean, bere ahotsean eza-gutu ditugula. Eta gainera Leterekin pilotara jokatu zuen Oiartzun gris hartan, eta bertso zaharrak musikatu zituzten batera. Lertxundik poema bakoitza aurkeztuko digu, kokatu, ulertzen lagundu.

Irailaren 4an, oster, *Tenpora* (*zaldia, denbora*) dator, Harkaitz Cano eta Karlos Linazasororen hitzekin eta Hasier Oleaga (bateria), Itsaso Etxebeste (baxua), Juanxo Zeberio Etxetxipia (tekla-

tuak) eta Elene Arandiaren (ahotsa) laguntzarekin. Gugandik bihozkada batera erreztatuko ei dute poetek, jo musikariek: “Denbora eta eguraldia, musika eta hitza, baraua eta oturuntza, guk zuretzat prestatu dugun tempo xamur xume bat, une batez barrurago bizi zaitezen, zeuk daramazun jainko ttikiaren baitan”. Denen artean soinu bat bilatu eta horixe aurkitzea izan da euren erronka, “hementxe, zugandik bihozkada batera”. ■

Igor Estankona

KONTZERTUAK



Willis Drummond.

Musika festa Hondarribian

HONDARRIBIKO musikariak eta musika zaleak biltzen dituen Psilocybe Elkarteak hogeitun urte bete dituela-eta, festa antolatu dute abuztuaren 24rako. Bazkari herrikoia, giroa berotzeko txaranga eta kontzertua prestatu dituzte. Zumardira gerturatzen denak doan ikusi eta entzun ahal izango ditu “funk eta soul ukituak, bluesa, rocka eta punk espiritua” uztartzen dituen Atom Rhumba talde bilbotarra, Willis Drummond rock-zale baionarrak eta “blues toxikoena” eta “psychobilly bortitzena” nahasten dituen Guadalupe Plata taldea (Jaen, Espainia). Alde zaharraren alboan eta zuhaitzez inguratuta, doinu gogor eta parrandazaleen bat egingo dute uda betean.

Urteurrena ospatzeko, dokumental bat ere ari dira grabatzen eta hogeitun urte hauetan elkarteak antolatutako kontzertuetan eginiko argazkiekin erakusketara osatuko dute. Izan ere, zuzenekoak eskaintzeko aretoa du elkarteak: Psilocybe Enea. Eraikin beltz hau, “P” arrosa erraldoiduna, elkartearen arima da eta emanaldi aretoaz gain entseatzeko lokalak, grabazio estudioa eta irratia ditu. Euskal Herriko eta atzerriko talde andana igaro da bertatik, eta horien irudi aukeratuak jarriko dituzte ikusgai. Pizgarri gisa, Udalarekin batera Psilocybek antolatzen duen Baluarte Rock jaialdiaren baitan hiru emanaldi izango dira abuztuaren 1ean, Santiago kalean; Luz de Putas eta Patxuko Nice 8an, Kasino Zaharrean; eta Imago4 eta Tripimonsters 15ean, Gipuzkoa plazan. Kultura musikala bizi mantentzen da Bidasoaldean eta etorkizuna iragana bezain indartsu datorrela erakusteko, jai itzela iragarri dute abuztuko azken txanparako. Festa gogoia eta musika ona behintzat ez dira faltako, Beti Mugan, Lif, Sorotan Bele, Dut edo Kuraia bezalako taldeen sorburuan. ■

Mikel Garcia Idiakez

LITERATURA

Berdin udazken, negu, udaberrian

HAMAHIRU URTEREN BURUAN liburu bati atzera heltzea ez da beti ariketa samurra. Zertan den orain hainbeste egindako irakurketa, nola eragin dion denboraren iragaitak, zu zeu zenbatean zahartu zaren. Are gogoratzen baduzu liburu hura zela nabarmentzeko modukoa. Baina, noski, hogeitun urte zenituen orduan, bizitzaz ez zenekien ezer. Aurretik ezagutzen zenuen autoreak. *Bala zeru urdina*, 1993koa. Gogoan duzula, zuk zeuk erositako lehen liburuetakoa bat. Gogoan duzula, harri eta belarri utzi zintuena erabat: zer jaten du mutil honek hemezortzi urterekin publikatzeko halako liburu bat. Demasa.

Urpekari trapaak jantzita, beraz, hamahiru urte behera egin dut Xabier Aldairen *Bazterrekoak* ipuin bildumarekin. Eta, zer nahi duzue esatea, iruditzen zait denborarekin egin duela hobera, ardoen antzera. Izugarri harritu nau berriz, hamahiru urteren buruan, zer ahots, zer senda, zer gordin. Izugarriak —eta hitzaren edozein adieretan— egin zaizkit berriz “Ehiztariak”, “Jostailuak”, “Uruguai bizi da”, “Han belarra beti berde baita”. Udan irakurtzeko modukoak denak, plaian, mendian, etxeko sofán —nik neuk herriko bestetara ere eramango nituzke, lasai asko—. Baina irakurtzekoak, berdin udazken, negu, udaberrian.

Pena bakarra daukat, 2000ko *Bazterrekoak* izatea Aldairen azken liburu argitaratua. Ez dakit idazten jarraitzen duen —agian, suerte pixkatekin, bai: 2010ean sari bat irabazi zuen “Lanbrotan” izeneko ipuinarekin—. Jarraituko balu, ordea, irrika biziz itxarongo nuke idatzi duen horren argitarapena. Bestela luzeegi egingo baita *Bazterrekoak* berrirakurtzeko beste hamahiru urte itxaron behar izatea. ■

Aritz Galarraga



ogiaren egia



Galarrosa
OKINDEGIA

Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin

Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

ERAKUSKETA

Zinema, Balenciagaren amets bat

Erakusketa **Non:** Cristobal Balenciaga Museoa, Aldamar Jauregia, Getaria. **Noiz:** urriaren 13a arte.

Balenciagak jantzitako izarrak

LAU HAMARKADATAN 20 film baino gehiagotan lan egin zuen Cristobal Balenciagak emakumezko aktoreen jantziak diseinatzeko. Orain, Balenciaga Museoa eta Pedro Usabiaga argazkilariak jostunak zinemarekin izan zuen harreman hori bildu nahi izan dute. *Piégés* (1939), *Nuits d'alerte* (1946), *Anastasia* (1956) eta *North by Northwest* (1959) dira film horietako batzuk. Balenciagak jantzi zituen aktoreen zerrenda are deigarriagoa da: Elizabeth Taylor, Ingrid Bergman, Marlene Dietrich, Ava Gardner, Grace Kelly...

Argazkietako batean Marlene Dietrich ageri da *Paris When It Sizzles* (1964) filman, auto batetik irten berri, gona zuzenaz eta patrikadun jakaz osatutako boli koloreko traje bat soinean. *Anastasia* (1956) pelikularen argazkian Ingrid Bergmanek kolore bereko zetazko soineko bat darama, bi xingola brodatuz apaindua. Erakusketako alerik ederrenetakoa Ava Gardnerrek *The Angel Wore Red* (1960) jantzi zuen gaueko soinekoa da. Filmaren izenburuak aingerua gorritz jantzen zela dioen arren, “munduko animaliarik ederrenak” (hala esaten zioten Ava Gardnerri) daraman soinekoa zetazko gaza beltzez egin da, erpinean amaitzen den eskote zabalekoa. Eskuineko uhalean paparre-



Ava Gardner.

ko bat du apaingarri, eta handik zintzilik ehun bereko exarpea.

Baina hori guztia argazkitan soilik ikus daiteke, argazki erakusketa baita. Faltan botatzen da jantziak bertan ikusi ahal izatea. Horregatik, erakusketa toki ezin hobean dago, museoan getariarraren nahi adina jantzi ikusi (eta ia ukitu) daitezkeelako. Eta Getariako kaleetan Balenciaga mutikoa imajinatu dezakegulako, Casatorreko markesaren soinekoek liluratuta, egunen batean halako jantziak diseinatuko zituela amestetan, zinemako izarrik handienak bere artelanentzat mihise izango zirela susmatu ere egin gabe. ■

**Nagore
Irazustabarrena**



LITERATURA

Poesia betean

UDA BETEAN aurkeztu dira poesia liburu berri bi: Mari Luz Estebanen *Amaren heriotzak librego egin ninduen*, Pamielaren eskutik, eta Mikel Ibargurenaren *Bide batez esanda*, Utriusque Vasconiae-ren eskutik. Lehena auto-narrazioaren bidetik mintzo da, askatasuna eta maitasunaren arteko harremana hizpide, intimitatea poesiarako bide: “Gogoratu du inoiz inon irakurritakoa, garena moztortuz eraikitzen gabela”. Bigarrenak, deserrian zedarritutako ahotsa dakarkigu, gatazka orok norberaren eta inguruko gorpuztutan uzten duen oihartzunarekin, bizipena hitz poetikora ekarria, muturrak ukatu gabeko erdibideek sortu ahal duten mina eta itxaropena: “*baina errealdismo guztien gainetik/ zein kritika literario guztien azpitik, idazten jarraitzeko/ arrazoï poetikoak ditut nik*”. Agian norberaren egia fikzio konpartitua besterik ez da; horrela bada, poesia barne urradura konpartiturako tresna izan liteke, memoria ez-historikoa jasotzeko bide posible bat. Mari Luz Estebanen kasuan, genero gomuten testuinguruan kokatuz gero, batzuoï ezohikoak zaizkigun moduak azaleratzen dizkigu, gero eta gehiago, gero eta ageriago kontraesanak eta eztabaidak, norbera den bestea hizpide. Ibarguren lanean topatu dut egungo bizi-pen zentzu-estu-batean-politikoek pertsonengan duten oihartzun humano itzela, errealtatearen begietatik mina erauzi gabe, aurrera egiteko borondate sendoan izkiriatu. Egungo jendarteetan topa litezkeen kezak, minak, desioak irakurtzeko bideak aurkitu ditut liburu hauetan, poesia betean. ■

Oier Guillan

ANTZERKIA

Bilboko Aste Nagusian bi estreinaldi, Pabellon 6 aretoan


BERTAN EKOITZITAKO bi lan estreinatuko ditu Bilboko Pabellon 6 aretoak Aste Nagusian. *Hoy, Última Función* antzezlan dugu bat, Karrakaren taldearen aspaldiko lana, Ramon Bareak eta Itziar Lazkanok antzeztua.

90eko hamarkadan ekin zion bideari Karraka taldeak. Arriaga Antzokian izan zen, eta aipatu lan hau taularatu zuten, hain zuzen. Halaber, Ramon Barea eta Itziar Lazkano izan ziren protagonistak. 20 urte geroago, La Galleta del Norte literatur tailerrak Karrakaren laguntzaz idatzitako lana berriz eskaintzeak “bereziki ilusionatu ditu antzezle biak”, Irene Bau Pabellon 6ko kide eta antzezleak aipatu digunez. Bi aktore zaharren istorioa kontatzen digu obrak. Bikotea bizitza errealean, balizko azken emanaldia antzeztuko dute, eta hainbat pertsonaia agertuko dira: Godot, Ionesco, Juan Tenorio, Stanislavsky... Beraiekin hitz egingo dute, galderak egingo dizkiete, epaitu egingo dituzte, azken emanaldi handia hasi baino lehen. Abuztuaren 15etik aurrera ikusi ahal izango da, gaueko bederatzieta, Pabellon 6 aretoan.

Bilboko Aste Nagusiko bigarren estreinaldia *Chihuahua* kabareta dugu. Zortzi antzezle biltzen ditu lan honek: Mítxel Santamarina, Enriqueta Vega, Lander Otaola, Itxaso Quintana, Iñaki Maruri, Quique Gago, Diego Perez eta Irene Bau. Felipe Lozak idatzi eta zuzendua da kabareta, eta antzezleek dantzan egin, abestu eta hainbat pertsonaia ezagun imitatuko dituzte. Besteak beste, Liza Minelly, Marilyn Monroe, Amy Winehouse, Cantiflas eta Sabino Arana. Mexikar giroko gau alaien lokala da Chihuahua kabareta, baina krisiak ere gogor jo ditu bertako biztanleak: publikoa eskasa da, BEZ zergak dena garestitu du, EEE bat egitea beharrezkoa da, Frida Khalo eta Monserrat Caballe langabetuen hileran daude. Irene Bauk azaldu digunez, “kabareta bizitza bera bezalakoa da. Komedia musikal honek errepaso ironikoa egingo dio azken hamarkadako egoerari. Gure garapenari egingo diogu barre, kontsumo alaitik krisi latzera emandako jauziari”.

Aste Nagusiarekin batera, arte eszenikoetako sortzaile eta antzezleek kudeatutako Pabellon 6 aretoak bi urte beteko ditu. ■

Myriam Garzia



Inguru
ABENTURA

- Abentura kirolak
- Ezkonurreko agurrak
- Familiarteko jarduerak
- Abentura bidaiak
- Material tekniko alokairuak
- Eta askoz gehiago...

San Juan 18. Albeniz-Asparrena (Araba) - Tel. 635 748 948 - 635 748 947
www.inguruabentura.com - info@inguruabentura.com

IKUSKARIA

Nazioarteko dantzak Portugaleten

UZTAILAREN 24AN emango zaio hasiera Portugaleteko 39. Nazioarteko Folklore Jaialdiari, nahiz eta aurrez, hilaren 21ean, parte hartzaileek Munduko Dantzak ikuskizuna eskainia duten. Benin, Galizia, Kalmykia –Errusiar Federazioa osatzen duten errepubliketako bat–, Kanada, Peru eta Turkiatik iritsitako taldeak, jaialdiaren antolatzaile Elai Alairekin batera, uztailaren 27ra arte jardungo dira iluntzeroko 21:30ean, La Canilla ibiltokian. Antzezleku berria aukeratu dute, hortaz, baina aurreko urteetakoak bezala, kalean dago hau ere. Ohitura denez, ikusleentzat dohainik izango da; eskertzekoa beti, zer esanik ez garaiotan.

Elai Alai taldeak 1972an antolatu zuen estreinakoz Nazioarteko Folklore Jaialdia. Franco hil osteko garai gorabeheratsueta hiru urteko etenaldia egin eta gero, jaialdiak 1980an ekin zion gaur arteko segidari. Orduetik ez dio hazteari utzi, eta honezkero ohitu egin gara urtero-urtero ia kontinente guztietako dozena erdi dantza taldez gozatzeri Bizkaiko Zubiaren itzalean. Ondoko argazkian, 2011ko edizioan Portugaletera etorritako Indonesiako taldea ikus dezakezue. ■

Unai Brea



ASIER BASTIDA HURTADO



SAIAKERA

Por el bien del imperio. Una historia del mundo desde 1945
Josep Fontana
Pasado y presente, 2011

AEBen egungo klabeak

BIGARREN MUNDU GERRAZ eskolan edo unibertsitatean ikasitakoarekin asko zenekiela uste zenuen? Bada, Josep Fontanaren liburu hau irakurtzen baduzu, ezetz konuratuko zara, edo behintzat, beste gauza asko ere ikas ditzakezula gerraren arrazoiez eta ondo-

rioiez; eta batez ere, hurrengo 40 urteetan European eta munduan izandako bilakaeraz. Funtsean, AEBen eta SESBen Gerra Hotza ardatz hartuta, 1945etik gaurdainoko munduaren garapenaren klabe nagusiak ulertzeko tresna bikaina da.

Hamarkada horiei buruzko klabe ekonomiko eta politikoetan bikain arakatzear gain, munduko Gerra Hotzaren gune beroenak ere aztertzen ditu: Txina, Vietnam, India, Israel, Angola, Aljeria, Kuba, Txile, Argentina, Afganistan... Dozenaka herrialdetan bi ikusmolde kontrajarrien zipriztinak miatzen ditu zorrotz historialari katalanak.

AEBen nagusitasun militar eta ekonomikoa handia izanik, gerra nuklearraren beldurrak orekatutako hamarkadak izan ziren, nahiz eta pentsatu baino gehiagotan izan zen lehertzekotan gerra nuklearra, esaterako 1962an, Kubako misilen krisian. Funtsean,

AEBek munduan barrena bere ikusmoldea eta nagusitasuna inposatzeko baliatu zuten Gerra Hotza eta, globalizazioaren emaitzak ikusita, ezin esan guztiz txar to atera zaienik.

Historialari bati dagokion moduan, liburua zehatza eta analitiko da, baina bere balio handienetakoa idazkeran dago, gertakizuna, analisia, dokumentazioa eta anekdota era erakargarrian etengabe tartekatzen dituelako, 1.000 orrialde bata bestearen atzean irentsiaraziz. Nekez idatz daiteke historiaz modu atsegina goan. Nazioarteko gaietan interesa duen irakasle, kazetari edota herritarraren apalean falta ezin den harribitxia da, unean uneko plazeraz gain, dokumentaziorako ere oso erabilgarria. Murgiltze saiorik egin gura duenarentzat, 2013ko urtarrilean *Larrun* monografikoa egin genuen Fontanaren elkarrizketarekin. ■

Xabier Letona

LITERATURA

Eppur si muove

NAZIOARTEKO SONA, kritika onak eta txaloak jaso dituen idazle gehienei bezala, Alice Munro ere agertu zaio kritikari bat “meh!” esaka. Christian Lorenzenek duela bizpahiru hilabete *London Review of Books* aldizkarian argitaratutako artikulu batean zorrotz disekezionatu zuen kanadarraren azken liburua, *Dear life*, eta haren obra guztiari bainak atera zizkion.

Patroi narratibo errepikakorrek salatzen zituen, beste hainbat konturen artean (“Rosek

zerbait ikusten du, gero beste zerbait bizitzen du eta zenbait urte geroago beste gauza bat gertatzen da bi gertakariak lotzen dituen eta zentzua ematen diena”); sinkopatuta utzi ninduen, Meettok argitaletxearen eskutik publikatutako *Zorion handiegia* ipuin bilduma irakurri berritan nengoelako, gozatu ederra hartuta.

Ezin ukatu Lorenzenek esaten dituen zenbait gauzek bete-betean asmatzen dutela. Egitura narratiboaren

aparte, pertsonaiei egiten dien kritika kontuan hartzekoa da: “Askotan txalotu dute istorioak angelu berezietatik kontatzeagatik, baina normalean egin ohi duena zera da, istorioa kontatzea gazte lotsati eta baldar baten ikuspuntutik, baina baita arduratsua eta agian goiztiarra ere: egilearen ordezkari bat, normala, eta gai dena bere pertsonaia patetikoen miseria ulertzeko haiek inoiz ahalko dutena baino hobeto”.

Zer egin kritikarekin ados egonda eta hala ere liburua atsegin duzunean? Berriz irakurri. Eta distantziaz, idazlearen tranpetan ez erortzeko zortzi begiz irakurrita ere, liburuak nota onarekin gauditu du bigarren azterketa. Trikimailuak bistan daude baina... *eppur si muove*. ■

Gorka Bereziartua



MUSIKA

Hurbildu operara

ABUZTUAN mila aukera izango dituzue aisirako, baina, mesedez, tarte libre bat egin urtean zehar gutxitan ematen den ikuskizun batez gozatzeko, opera hain zuzen ere. Eta oraindik ez bazara zale amorratua, baina pentsatzen baduzu gustatuko litzaizukeela operaren sorginkeria sentitzea, joan zaitez *La Traviata* ikustera. Musika Hamabostaldiaren egitarauak dioen bezala, Europa osoan ez da izango pertsonarik Verdiren obra hau ezagutzen ez duenik.

Alexandre Dumasen *Kamelien dama* nobelan oinarritzen da argumentua. Istorio erromantiko eta dramatiko da, oso, non itxurakeria eta zurikeriak kontrajartzen zaizkion benetako maitasunari, eta, behar duen bezala, heroiaren (Violetta Valéry) heriotzarekin amaitzen den. Negar egitekoa, bai. Egia esan, obra hau Verdiren produkzioan inflexio puntu bat izan zen. Bere aurreneko lanek (*Oberto, Un giorno di regno, Nabucco*) identitate nazionalako sentimendu sakona adierazten zuten. Baina, denborarekin, pasioak eta arimaren sufrimenduak izan ziren bere kezka nagusiak, eta *La Traviata* opera horren isla da. Kritika gogorak jaso zituen, ez alde artistikotik, lan aberatsa eta perfektua baita, garai hartako gizartearen moralitatearekin bat ez zetorrelako baizik. Prostituta baten maitasunagatik sakrifizioa, eta gizartearen biktima bezala azaltzea, ez zen batere onargarria.

Musikaz, zer esango dugu. Verdi, Verdi hutsa, melodiatsua, adierazkorra, sentsiblea. Benetan erakargarria. Beharbada, munduan gehien antzezten den opera izango da. Aldi honetan, Musika Hamabostaldiak eskainiko digun emanaldian, Josep Bros tenorea izango dugu, Alfredoren rolean (joan den irailean ABAOren produkzioan abeslari bera izan genuen), eta Desirée Rancatore Violetta gaixoa izango da. Susana Gómezek egingo du eszena zuzendaritza eta Pietro Rizzo izango da zuzendari musikala. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa edukiko dugu fosoan eta Easo Abesbatza arituko da koru lanean. Gogora zaitezte abuztuaren 11n eta 13an emango dela, Donostiako Kursaal Auditorioan. Ez galdu! ■

Montserrat Auzmendi

INAKIBEREZIARTUA
Enbalajeak · Biltegiatzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza



Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com · mjm@inakibereziartua.com

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



943 453 588 · www.sigacus.com

LITERATURA

Liburuak udako, bizikletak bezala

GARAI BATEAN bizikletak ziren udarako. Film baten titulu guti-aski ederra. Alimaleko ergelkeria, hutsean huts hartuz gero.

Garai batean bizikletak ziren udarako. Baina uda eta negu, jai eta aste ibiltzen ginen hankarteko panderoaren gainean. Orintxe ibiltzen garen bezala.

Garai batean bizikletak ziren udarako. Orain liburuak. Omen. Baina, nola bizikletan, uda eta negu, jai eta aste gabiltza liburuetan. Gozagarri zaizkigu. Eta hortik jan-edan deza-zuen da gonbita. Frantzizko Laphitzen *Bi saindu beskualdunen bizia*-k usteko ez genituen perlak ditu orri batean bai, hurrengoan ere bai. Jean Baptiste Constantinen *Haritchabalet Don Juan eta bere adixkidiak* ez da kamutsa. Fermin Irigaray Larrekoren *Nafarroatik* tentagarri zaigu beti.

Hala ere, “salduenen” –omen– zerrendak agintzen du beti. Liburu berriak. Ohiko bide eta formatueta-rik eskapatzen ez direnak. Fabrika zatarraren historiak ez du balio. Omen. Eta hala ere, hor da, zatarraren eder, Koldo Izagirreraren *Voz y vida obrera Luzuriaga hogeita bost lekukotasun*, idazle egin lezakeen lanik osoenetakoa.

Nork bere liburu-bidea egiteak asko balio du. Ezerk ez du horrek hainbeste balio, zerrendak bazterrera bota eta nork bere bide propioa egitea, gogo onez leituko duen liburua hartzea.

Har lezake berri ez den liburu beti berria eta urteurrenarekin batera, *Obabakoak* hartara jo, baina honako edizio berrian, Marta Cardenasen ilustrazioak dituen honetara. Har lezake Anjel Lertxundiren *Paper-festa*, Karmele Jaioren *Ez naiz ni*, Mikel Tabernaren *Alkasoroko benta*, Iñaki Seguiolaren *Arrazoia ez dago edukitzarik*, Garazi Goiaren *Txartel bat (des)herrira*, Ainara Gorostizuren *Aldamenekoak*, Karlos Linazasororen *Versus*, Jose Enrike Urrutia Capeauren *Weylerren itzala*...

Irakurleak hobe luke liburutendara, bibliotekara, etxeko apaletara jo... berak nahi lukeena hartu, bere buruari ordubete opa, eta leitu.

Lehenago, antzokietan ohi denez, sakelakoa amatatu. Liburuak piztu eta telefonoa itzali. Uda eta negu, jai eta aste. ■

Miel A. Elustondo

SAIAKERA

Batzarra, gure gobernua
Pablo Sastre

Elkar, 2013



Komun denak debatea behar du

ESTATUAK eraikitzen hasi ziren garaian kokatzen gaitu saio honek, Erdi Aroan. Estatu haietatik landa bazeuden ere herriak. Gurean Batzarra zen gobernatzeko modua. European herriek erregearen armada behar zuten, subiranotasuna gordeko bazuten.

Nafarroako Erresuma hizpide: erregea espanturik gabe sartu zen Batzarrean, alta, herri-batzarrak ez zuen gehiago erabaki harrez gero.

XI. mendera arte herritarrek bazuten herri batzarretan parte-hartzea. XII. mendean jada jauntxoek besterik ez. Hiriak sortzen hasi ziren. Erresumaren babespeko jauntxoek herri batzarrak barreiatu zituzten, Nafarroan ez, artean. Gazteluko monarkiak euskal herri handietan kontzeju itxiak ezarri zituen. XVIII. mendean bere eragina txikia bazen ere estatua nagusitzen hasi zen. Kontzeju “ireki”en ahalmenak murriztu ahala udalak indartuz joan ziren kontrol batzar legez. Estatuaren burokrazia sendotu zen. Ondorioa: jendeon arazoak estatua konpontzen hasten da, herriarekiko hurbilekoa den auzotarra hiritarra bilakatzen doa. Herria kolokan izatera pasa zen.


Sastren hitzetan botoaren arabera erdua da egungo demokrazia. Alta, erabakiak politikoek hartuak dira aldeaz aurretik. Agintariek ez dute zuzentzen, estatuaren zerbitzariak baizik. Zuzeneko demokraziaren funtsa gauzatzeko herritarren batzarra beharko lirateke.

Horrela segitzen du: “1512an –diote estatuzaleek– Espainiak Nafarroa, gure estatua, konkistatu zuen. Estatu hori berreskuratzea goaz”. Haatik, Nafarroako Erresuma sortu baino lehen, euskal herriak herri batzarrek gobernatu zituzten.

Batzarra, urra baledi ataleko egilearen zenbait aburu: batzarrak komuna zaintzen du, herri-arima alegia. Batzarrak auzolanak konbokatzen ditu. Sastren gusturako, auzolanak baino, auzo-arteak du garrantzia. Batzarrak, elkarrenganako begiruneaz gain, denbora behar du. Hots, komun denak debatea behar du.

XXI. mendearen atarian eratu zen Udalbiltza. Kultura politiko horretan ikusten du Sastrek batzar subiranoa. Udalbiltza (bir)eraikitzen ari direnentzat saio gomendagarria da berea. Bere urratsetan sakontzea gomendatzen diot orori. Era labur samurrean emandako urrats-saioa da. Premisa bat azkenik: gure munduan, gauza komuna pentsatzeko, kapitalismotik eta estatutik at jarri behar dugu gure burua. ■

Mikel Asurmendi



KOMIKIA

Munduko bandarik txarrena
Jose Carlos Fernandes

Itzultzailea: Bego Montorio.
Txalaparta, 2013

Huskerien garrantzi neurrigabea

LANBIDE eta afizio surrealistikak eta buruhauste irrazionalak dituzten pertsonak –gizonezkoak ia denak– dira komiki honetako protagonistak. Munduko bandarik txarrena osatzen duen laukoteak, esaterako, 30 urte daramatza entsegu lokalean, baina oraindik ez du lortu pieza bat osorik jotzea. Sebastian Zorn, taldeko buruzagia, adoregabetu egiten da batzuetan...

“Ironia desesperatuen kortesia dela esan ohi zuen Francis Pica-biak. Hona bada hemen desesperatu saldo bat, itxurak gordetzen dakiena”, idatzi du komikiaren hitzaurrean Harkaitz Canok, trajez jantzita doazen –“etiketa inportantea da desesperatuen kasuan”– pertsonaiez hitz egitean. “Belle époquearen dekadentzia eta dotoretasuna nahasten zaizkie, denbora-pasa obsesiboekin gozatzten dute. Kaosaren eta gizarte lobotomizatzailearen aurrean probetxuzko zereginak geroko utzi eta horren ordez lan izugarri

baina ez errentagarriak heroikoki burutzea hautatu dute”.

Liburu laburtzailea, Gauza hutsal eta garrantzi gabekoek museoan zuzendaria, boto emailerik izan nahi ez duen Alderdi Inpopular Idiosinkratikoko burua, mezu satanikoak detektatzeko helburuarekin merkaturako disko guztiak atzekoz aurrera entzuten dituen gizona, hodeien inbentarioa egiten ari dena, hiria bertsotan jarri nahi duena... Egoera absurdu ugari dakar Jose Carlos Fernandes portugaldarrak, kritika dosi zirikatzailez zipriztindurik.

“Badu absurdotik, badu kafkarretik, eta, aldi berean, badu salaketatik ere”, dio komikia euskaratu duen Bego Montoriok. Barre algararik egin eta eragin gabe, tarteka irri-erdiak sortuaz, eztenkadak ematen dituzte komikiko pertsonaia bereziek. Beautiful peoplea, high societya, liposukziorako industria nazionala, atleten adimen-ahuldadea, bulego

publiko batean lanpostua lortzeko ezinbesteko jakintzak... muturreko ugari jasotzen du gaur egungo gizarteak.

Munduko bandarik txarrena komikia sei liburukik osatzen dute, eta haietako hiru bildu ditu ale honetan Txalaparta argitaletxeak. Bina orrialdeko 75 istorio dira, ageriko jarraikortasunik gabekoak baina 1950eko hamarkadan gertatua dirudien unibertso absurdu horren parte direnak guztiak.

Okre koloreko eta batzuek feismoarekin lotzen dituzten trazu irregularreko irudiek –agian gehitxo da hori esatea– ukitu are bereziagoa ematen diote batere konbentzionala ez den komikiari. Hasieran kosta egiten da liburua-ren logikari jarraitzea, eta litekeena da arrapaladan irakurtzeak apur bat nekaraztea, baina autoreak proposatzen duen jolasari neurria hartuta, gozamenerako aukera izango dugu. ■

Jon Torner

LIZARRALDE SOINUA TXALAPARTA, S.L.



SOINU PROFESIONALA
MEGAFONIA




Tel. / Faxe 945 226 977 • txala@txala.euskalnet.net • 01012 GASTEIZ



Eguneko menuak
Ospakizunak
Asteburuko menu bereziak
Plater konbinatuak

© 943 683 327 / 656 710 073 • Hirigunea, 1 • Elduain (Gipuzkoa)



Euskal Herria ezagutuz

URRETXU (GIPUZKOA)

Irimoren magalak bizikletentzat ere badira

Urretxuarrentzat mendi berezirik bada, hori Irimo da inolako zalantzarik gabe. 900 metro inguruko gailur lerdena da, Urretxuko txoko gehienetatik ikusgai dagoena. Herriko zelataria da, zaindaria. Txango ugari egin daitezke bere isurialde guztietan, edertasun handikoak denak ere. Oraingoan mendia bizikletaz inguratzea proposatuko dizuegu.

Testua eta argazkiak:

| GORKA AZKARATE |

IPARRAGIRRE PLAZAN hasiko dugu txango zirkular ederra, izen bereko kantari historiko handiaren oroimenez eraikitako harrizko irudiaren oinetan. Nekolalde kalean gora joko dugu eta Santa Barbarako bideari egingo diogu aurre. Lehenbiziko bi kilometro pasatxoak errepidez egitea gomendatzen da, errepideko bihurguneak saihesten dituzten lasterbideak gehiago baitira oinezko txangozalearentzat prestatuak, mendi bizikletaz joateko baino. Norberarena da erabakia.

Irigon eta Etxaburu baserriak atzean utzi eta ahalegin betean helduko gara Santa Kruz baserri pareira, Aikur erle museo ezaguna dagoen muinotik gertu; benetan gomendagarria, museoa bisitatzea. Baina gaurkoan segi diezaiozun bideari: Santa Kruz baserrian Santa Barbarako ermita eta aterpetxera doan errepidea utzi eta eskuinetara joko dugu, Neberako bidetik.

Neberarantz, bizikletaz gozatuz


Errepideko zatian eroso igo bagara honaino, hemendik aurrerakoa

gogortxoagoa da; hori bai, mendiko bizikletan ibiltzeaz gozatzen hasiko gara. Garapena arindu eta erritmo lasaian egingo dugu gorantz, paisaiatz gozatuz, gerizpean unerik gehienetan, Neberara bidean. Bidegurutze batera iritsiko gara berehala, eta Nebera jartzen duen norabidean egingo dugu gorantz. Laster Lizarriturriko parajera joateko bidegurutzera helduko gara, Irimoko magalean bertan, baina guk aurrera segituko dugu, Trekutzera. Pista estutu egingo da apur bat, eta mendi-bide itxura handiagoa hartuko du, basatiagoa, pikoagoa ere zenbait unetan. Edozein kasutan, bizikletan ibiltzeko egokia, gozatzeko modukoa.

Luze gabe joko dugu Laarregiko lepoa, Trekutzetik kilometro erdi eskasera. Uneoro itzalpean, garapena gogortu eta erraz egingo dugu aurrera, harik eta Trekutzeko iturri zaharrera —orain ia 30 urte berritutakoa— heldu bitartean. Uda partean emari urri xamarra ekartzen duen arren, freskalditxo hartzeko balioko digu behintzat. Antzuolako lurretan gaude orain; Trekutzeko lepoan dagoen Gaztelugain elkartearen paretik igarota, beherako bideari ekingo diogu beste isurialdera igarota.

Belarrezko xenda ederra Trekutzera bidean.





Goian, ezkerrean, Ipeñarrieta jauregia, Santa Barbaratik gertu. Eskuinean, Trekutz inguruetako bideetako bat. Lerro hauen ezkerrean, Irimoko mendigunearen ikuspegia.

Santa Barbara eta Ipeñarrieta

Santa Barbarako ermita eta aterpetxe berriak urretxuarrek bereziki maite duten parajea da. Indarrak berritzeko aukerarik ez zaigu faltako behin hona iritsita. Hemendik herrirako bidea, Mendizabal, Zuloaga eta Erratzu baserrietatik igarotzen den errepidetik egingo dugu, hori bai, Santa Barbaratik gertu dagoen Ipeñarrietako jauregiari begiratua egin ostean. Lerdena da jauregiaren aurrealdea, edozein bisitari kitzikatzeko modukoa.

Beherako bidea hartu eta maldan bizikleta askatuz, berehala helduko gara Aita Pasiotarren elizara eta Pagoeta auzora, Urretxuko hegoaldean. Labeaga kale luzea zeharkatu

eta Gernikako Arbola plazan amaituko dugu hamabost kilometro inguruko txango ederra, Iparragirrenen doinurik ezagunenak goioan.

Eta adoretuenentzat...

Mendi txirrindulari trebe eta indartsuenek, behin Trekutzera iritsita, Irimoko tontorrera igotzeko saiakera ere egin dezakete, nahiz eta tarte horretan zaila den uneoro bizikleta gainean ibiltzea. Proposatutakoa dugun itzulian, berriaz, ez dago inongo eragozpenik ibilbide osoa bizikleta gainean egiteko. Hemen ere, norberarena da erabakia. ■



Bisitatu Ihesi.com, aisialdirako webgune parte-hartzailea.

Jaitsiera azkarra da, hartxintzar bide zabal baina tarteka arriskutsu samar batetik. Aspaldi berri gabe dago, eta urteen joanak eta eguraldiaren gorabeherak hainbat zulo egin dituzte, bizikletan goazela kontuz ibiltzera behartuko gaituztenak. Deskargako mendatera doa bide hau, baina guk erdibidean ezkerrean joko dugu Agerre baserri lerdaren bila, eta handik berehala iritsiko gara Santa Barbarako ermitara, jaitsiera azkar eta, orain bai, seguruagoan.



Urretxuko udala

www.urretxu.eu

Gozatu bizikletaz Irimo inguruan



Lurraldeak

Zonaldeak

Gomendioak

Jarri zure
bannerra

Gehitu
herri bat

Proposatu
zerbait

Euskal Herrian ihesi

Osa dezagun guztion artean geure gida sarean

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarrek bertara joateko
egun berezirik gomendatzen al dute?

Hurbil diezaiogun elkarri Euskal Herria



Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa

Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko Ihesi
erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak egiteko
lekua, zure iragarkia 0,50 €-tik aurrera...



ihesi.com



argia
proiektua

Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Mari Karmen Menika UEUko kideak esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Erraza


4			5	3				
2								
	3		1	8	6	4	2	
	5	1	3		9		7	4
3	6						5	8
7	9		5		8	1	3	
	4	7	9	1	2		8	
								1
		9	3					6

Zaila

	3	2		6	4		5	
	6						2	4
5								9
		5		4	1			
		4	9		7	6		
			3	2		4		
	5							7
1		9					6	
2			5	7		8	1	

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



- 1.- Abesti.
- 2.- Dударik gabe, benetan.
- 3.- Nire.
- 4.- Pastel handia.
- 5.- Aldiak.

Kike Amonarrizen umorea

Euria Euskal Herrian



– Zergatik eman zigun euria Jainkoak euskaldunoi?

– Elkarrekin haserretu gabe zertaz hitz egina izan genezan.



Soluzioak

Erraza

4	1	8	2	5	7	3	6	9
2	7	6	4	9	3	8	1	5
9	3	5	1	8	6	4	2	7
8	5	1	7	2	9	6	7	4
3	6	2	7	4	1	9	5	8
7	9	4	5	6	8	1	3	2
6	4	7	9	1	2	5	8	3
5	8	3	6	7	4	2	9	1
1	2	9	8	3	5	7	4	6

Zaila

9	3	2	7	6	4	1	5	8
7	6	1	8	5	9	2	3	4
5	4	8	2	1	3	7	9	6
2	8	5	6	4	1	9	7	3
3	1	4	9	8	7	6	2	5
6	9	7	3	2	5	4	8	1
8	5	6	1	9	2	3	4	7
1	7	9	4	3	8	5	6	2
4	2	3	5	7	6	8	1	9

Puzzlea:

“Partida nominala kentzea oso mingarria izan zitzaigun, errekonozimendu modu bat ere bagenuelako hori. Horrek kolokan jarri zuen erakundea.”

5x5:


1. Kantu.
2. Arcan.
3. Neure.
4. Tarta.
5. Uneak.

Kalkulagailu lanak egiten dituzten zelulak

AEBETAKO MIT institutuan lan egiten duten hainbat ingeniari kalkulagailu bihurtu dituzte bakterio-zelulak, eta haien bitartez batuketak, kenketak, zatiketak, erro karratuak edo logaritmoak kalkulatzeko era lortu dute.

Batuketa egiteko, adibidez, bi zirkuitu prestatzen dira, bakoitza molekula zehatz batekin aktibatzen delarik. Lehenengo zirkuituan, arabinosa izeneko azukreak GFP proteina sortzen duen genea aktibatzen du. Bigarren zirkuituan, AHL molekula ere GFP proteina sortzen duen genea ekoizten du. Guztizko GFPak adieraziko digu zein den arabinosa eta AHL kopuruen batura zehatza.

Ikerketa lan hauen aplikazio nagusiak terapeutikoak izan daitezke. Adibidez, sistema hori baliatuz, tumore-zelulak detektatu eta erasotzeko zelulak sortzerik izango dela uste da. Hala ere, bioingeniaritza saiakuntza hauek badituzte arriskuak; esaterako, patogeno kaltegarriak sortzea ustekabea. ■



Zientziak gero eta interes handiagoa sortzen du

Elhuyar Fundazioak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta EHUKo Kultura Zientifikoren Katedrak elkarlanean egindako azterketaren emaitzak aurkeztu zituzten uztailaren 10ean. Adierazi zuten, euskal gizarteak zientziaz eta teknologiaz duen interesa orain zazpi urte baino %11 handiagoa da.

ttiki.com/53339
(Euskaraz)

Gero eta kide gehiago hizkuntza industriaren elkartean

2010ean sortu zen Langune, krisi garaian alegia. Hiru urte hauetan egituraketatik enpresa bazkideei zerbitzu ematera igarotzen ari da; bilakaera ona da, beraz. Kontuan hartu behar da Europar zein munduan dauden era horretako enpresa multzo bakarretakoa dela.

ttiki.com/53340
(Euskaraz)

“Bio” jateak onura dakarkie euliei

SAIAKERA INTERESGARRIA egin berri dute *Drosophila* espezieko euliekin. Euliak 200eko taldetan banatu eta multzo bati bio patata, beste bati bio mahatsa, beste bati bio banana eta beste bati bio soja eman dizkiete euren bizitza osoan. Gainerakoei, berriz, produktu berdinak baina bio ez direnak.

Bio patata, mahats eta sojarekin elikatutako euliek batez besteko zein gehieneko biziraupena hobetu dituzte, gainerako taldekoenekin alderatuz. Hobekuntzak oso nabariak izan dira arlo batean zein bestean.

Ugalkortasuna ere aztertu dute ikerlariak, eta horretan ere hobekuntza nabaria izan dute bio jan dutenek. Datuak ezin dira bere horretan gizakira estrapolatu, baina herri jakintza dena jakintza zientifiko bihurtzeko lehen urratsa izan daiteke. ■



Drosophila eulia.

THOMAS WYDRA-CC BY SA



Heriotza arrisku handiagoa Espainian, osasungintzako murrizketak direla eta

Erresuma Batuko hainbat erakunde azken urteotan Espainian egiten ari diren osasungintzako murrizketen ondorioak aztertzen ari dira. Aurreikusi dute, hiesak eta tuberkulosiak gora egingo dute, eta bizi itxaropena aurreko hamarkadakoa baino txikiagoa izango da.

ttiki.com/53341
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Papoa tente

IRRINTZIKA ETORRI DA, tximisten irrintzika, uda sapa. Eta bero hezeak harrotu egiten du, baita makurrena ere. Berozale amorratua izaki, gaztainondoa lorez orain harrotzen da, gainezka dario. Bi lore ditu, arra eta emea. Hostajearen gainean, arren zima larua harro erakusten du. Haizeari eskainitako kalparrak lore horien polena hedatzea erraztuko du. Hostopean babestuta ireki diren lore eme lotsatiak ernalduko ditu polen horrek.

Nabarmena da gaztainondoaren harrotasuna. Urrutira ere erraz igarriko diozu: ardi-larrua jantzi duen otsoaren itxura du, zuhaitz berdeen artean, poteko horail oxigenatutako ileordea jantzita... Horrelakoak erabiltzen dituenak usainaz ere urrutitik tankera hartzea nahi. Eta gaztainondoaren lore arrari ez dario nola halako usaina: lodi, sarkor, mingatz, sudur mintz askoren iritziz kiratsetik hurbil. Umetako oroitzapena dakarkit gaztainondoak, urtero: gure etxepean zen ile-apaindegitik, batez ere larunbatetan, ile pintatu berria kardakarda egin eta laka usainezko

amaierarik gabeko arrastoa utziz ateratzen ziren emakumeak. Aste-buruko lanei ekitera, dirua gordezten zuten papoa tente asko!

Gaztainondoaren lorearen usaina ez da, baina, emearen aiekakoa, arrarena baizik: gizonaren hazi edo espermarekin lotzen da. Usaina halakoa omen du. Eta “omen” hori kendu egin beharko nuke, jende askok egindako aipamena izateaz gain, neronek ere hala uste baitut. Botanikaren amona den Lineok ere hala zioen: intxusak, ezkiak eta gaztainak esperma usain nabarmena duten loreak zabaltzen dituzte.

Sadeko Markesak gaia zorrotz asko azaltzen duen ipuina idatzi zuen gustura asko biziko nuen 1788 hartan: *La fleur de châtaignier*. Bertan, apaiz gazte bat saiitzen da emakume nerabe bati azaltzen gaztaina lorearen usainak gogora zer dakarkion. Donatien Alphonse François markesak apaizaren larrutarako gogoa sotanapean bista askoan azaltzen du, ezkontza eskaerak gaztainondoan azpian egiten zirela esanarazi besterik ez zionean...



PEDRO TAPIAS/BASKIMAGEN

Gaztainondoa Ataunen.

Gaztainondoaren loreak gizonaren haziak bezala poliamina berezi bat du, espermidina, alegia. Landareetan loreen eta fruituen bilakaeraren suspertzailletako bat da. Animaliotan, hazkundean eta zelulen heldzean zeresan handia du... ■



Bare festa

Aurten adina barraskilo eta, batez ere, bare ez dut sekula ezagutu. Hau da gasteropodo desdetxa, hau da festa. Ur festak dakar bare dantza. Eguneko ordu beroenetan izan ezik, hankaperaino hurbiltzen dira, lasai-poto asko. Horra etxe aurreko klematisaren (*Clematis sp.*) petalo ubelak dastatzen.

Bareak ateratzeko pozoirik gabeko era erraz bat bada: egur ezpalak. Landareen azpian ezpala jarri ondoso. Bertan hartuko dute habia lurreko kakalardo, nematodo eta beste laguntzaile ugari. Horiek bareak eta beren arrautzak jan edota bizkarroi jarriko zaizkie. Era berean, ezpala usteltzen doan eran, ongari ederra da. Beno, ezpala, porroxka, zoztorra... ■



JAKOBA ERREKONDO

Gerra zibil turistikoa

WARWICK



INDALENCIO OJANGUREN

Ezkerrean, Nazionalak Irunen antolatutako mutikoen desfilea, hiria hartu ondoren, 1936an. Eskuinean, Irungo Udala 1942an. Gipuzkoako hiria Iparraldeko Gerra Ibilbide turistikoaren abiapuntua zen.

IRUN, 1938KO UZTAILA. Ibilbide turistiko bitxia abiatu zen lehenengoz, bi urte lehenago piztutako gerraren gune nagusiak bisitatzeko. Nazionalak, pixkana-pixkana, aurrera egiten ari ziren eta, maiatzean, dekretu berri baten bidez, Turismo Zerbitzu Nazional frankista zirkuitu turistikoa antolatzen hasi zen, Iparraldeko Gerra Ibilbidea delakoa bisitatzeko: gudu zelaiak, gune kalte-tuak, babeslekuak....

Bidaia agentzia bereziaren helburua bikoitza zen. Batetik, dibisak pilatzea, bidaia gehienak atzerritarrak baitziren. Bestetik, bisitariekin propaganda lana egin nahi zuten frankistek, eta asmo horretan ere turisten jatorri anitza lagungarri zen.

Bidaia abiapuntua ez zuten deskuiduan aukeratu. 1936ko irailaren hasieran, Irungo gudua eta frankisten garaipena funtsezkoa izan zen Gipuzkoako Kanpainan, Iparraldeko Ofentsiba hasi baino lehen. Hiria hartuta, muga, eta beraz Frantziako Estatuarekiko lehorreko lotura eten zuten; hala, penintsula iparraldeko errepublikazaleen arma hornikuntza oztopatu zuten.

Ibilbidea Oviedoraino iristen zen eta, besteak beste, Donostian, Bilbon, Santanderren eta Gijonen egiten

zituzten geldialdiak. Handik gutxira beste ibilbide bat prestatu zuten, bereziki turista portugaldarrak erakartzeko: Galiziako Tui herrian abiatu, Santiagotik pasa eta Gijoneraino iristen zen. Eta hilabete batzuk geroago, nazionalak penintsula hegoaldea kontrolatu ahala, Hegoaldeko Gerra Ibilbidea ere antolatu zuten.

Turismo Zerbitzu Nazionalaren autobusetan egiten zituzten bidaia, bisitarien hizkuntzetan trebatutako bide-erakusleak lagun. Bisitaldiak eta azalpenak ez ziren soilik gerrari buruzkoak, arduradunak konturatu baitziren propaganda eragingarriagoa zela gudu kontu gordinak eduki kulturalekin goxatuz gero. Bidaia maiztasuna gorabeheratsua izan zen, baina gerra amaitu ondoren ere iraun zuten, 1945 arte.

Propaganda ahaleginen emaitza balioestea ez da erraza: 20.000 turista inguruk egin zituzten ibilbideak —errepublikanoen aldean, esaterako, nazioarteko brigadistak 40.000 inguru izan ziren— eta, gainera, ezin esan zenbateraino doktrinatu zituzten. Bigarren helburuak, ekonomikoak, ez zuen emaitza kaxkarra izan: garaiko zortzi milioi pezetako irabaziak izan zituen proiektuak. ■



Arrastoak

Cristobal Colon galiziarra “ere” bazen

DOMENICO GHIRLANDAIO



CRISTOBAL COLON GALEGO elkar-teak mapa nautiko bat aurkeztu berri du marinel ospetsuaren jatorri galiziarra frogatu nahian. Maparen arabera, Colonek Pontevedrako itsasadarreko 45 toponimo erabili zituen Amerikako beste hainbeste leku izendatzeko. Toponimoen artean, Santa Ana, San

Salvador, La Granja eta halakoak daude, izen oso zabalduak, eta beraz Galiziako elkartearen tesia indartzen laguntzen ez dutenak. Horrenbestez, Colonen ustezko sorterrien zerrenda luzeak hazten jarraitzen du: Katalunia, Andaluzia, Extremadura, Grezia, Korsika, Portugal, Kroazia... ■

PABLO IGLESIAS TURRIÓN

«Komunikabideen izaera publikoa aldarrikatu behar dugu, ez objektibotasuna»

Madril du bizitoki eta sorleku 1978tik. Politika-zientziak irakasten ditu Madrilgo Complutense unibertsitatean. La Tuerka eta Fort Apache solasaldi politikoen aurkezlea delako ezagutzen dugu. Blogaria da Publico.es webgunean, eta aurki zinema eta politikari buruzko liburua argitaratuko du. Muturreko esperientziak maite dituenez, tarteka Federico Jimenez Losantos edota Francisco Marhuenda bezalako pertsonaiekin borrokatzen da Intereconomía eta La Sextako tertulietan.

Testua eta argazkiak:
| AXIER LOPEZ |



Borroka armatuari buruz Fort Apache egin zenuten bezalako mahai-ingururik ez genuen telebistan ikusia. Demonstratu dugu zehaztasuna edo beste inork jorratzen ez dituen gaiak hizpide izatea ez direla ikus-

entzunezko produktuak ondo funtzionatzeko baldintzak. ETari buruzkoa da gehien ikusi den saioa. 30.000 erreprodukzio dauzka. Ez da solasaldi morbosoa. Bestelako estilo batez ekin genion bi aldeetan

tabua den gaiari. Programa horretako hitzaurrean aipatu nuen bezala, PP eta ezker abertzalea gonbidatu genituen eta biek ala biek ezetz esan ziguten. Oso harro gara telebistak ez duelako, halabeharrez, gai

garrantzitsuen banalizazioaren sinonimo izan behar.

Zenbat aldiz esan dizute “kontrakultura sustatu eta kontra-informazioan aritzen den kazetari alternatiboa”?

Gure belaunaldiak kontra-informazioaren aroa gainditu behar du. Etiketa hori gainetik kendu behar dugu. Batzuetan etsaiak ezartzen digun izena geure egiten dugu. Adibidez, anarkismoa lehergailuekin lotzen duen burgesiaren diskurtsoa sinetsi eta talde anarkista batek logotipoan bonba bat jartzea. Itzela! Kontrakoa zutaz egiten duen karikatura zure egin duzu. Kontra-informazioan aritzen garena onartzen badugu, txikiak eta narrasak garena aldarrikatzen ari gara inplizituki. Dinamika hori apurtu behar da. Guk, beste edozeinen maila berean, informazioa sortzen dugu eta haiekin lehiatu nahi dugu. Egia da bitarteko gutxiago daukagula baina informazio eta komunikazioaren teknologiak gartu izanak estetikoki irakaspenak ematea ere ahalbidetzen digu. Ohiko komunikabideek egiten dutena baino gauza dibertigarriagoak, entretenigarriagoak, zorrotzagoak eta serioagoak egin behar dira.

Deigarria da zuen saioetako solaskideen aniztasuna.

Nolabaiteko prestigioa lortu dugu. La Tuerkan edo Fort Apachen parte hartzea kaxeta ematen ei du eta horrek, PP edota Sindicato Unificado de Policiáko zenbait sektorek gurean parte hartzea eragin du.

Ni Intereconomía edota 13TVra seiren kontra bakarrik borrokatzeraz joaten banaiz ere, guk ez dugu saio hau egiten bakar batek guztien ostikadak jaso ditzan, denon argudioak mahai gainean jarri ahal izateko baizik. Horrek ezkerreari errespetua ematen dio. Zenbait eztabaida planteatu eta Martekoak ez garena erakusteko ezinbesteko sinesgarritasuna.

Zer sentitzen da Intereconomía-ko solaskide gisa?

Egundoko harrotasuna. Baita arrisku handia ere. Horrek, muga guztien gainetik, ondo ari garena erakusten du; orojakile edo espektakuluaren munduko gizagaixo bilakatzeko beldurra kontutan hartuta ere. Espai-

niako ezkerrentzat gehienbat, erreferente garena iruditzen zaigu. Hori zen helburua.

Bada jendea arriskatu gabeko eztabaidekin eroso dagoena eta politika egitea, funtsean, arriskuak hartzea da. Esan gabe doa, iraindu, zirikatu eta tranpak egingo dizkizuten Jimenez Losantos bezalakoekin eztabaidatzean arriskuak hartzen direla, baina chunka mila pertsona dauzkazu begira. Denak ez dira eskuinekoak, ordea. Jende arrunta ere badago, eta zu hor ez bazaude, arerioaren mezuarekin geratuko da. Inork ez zuen esan erraza zenik.

“Informazioa eskubidea bada, osasuna edo hezkuntza diren gisan, zergatik egiten dute lan hedabide gehienek jauntxo baten ondare eta interes pribatuen mesedetara?”

“Gauzak horrela dira eta horrelaxe azaldu dizkizuegu” ala egia ere eztabaidagai da?

Ez dut neutraltasunean sinesten. Analisi politikoak egitean ezin da neutrala izan. Datu zein argudioen zorrotasunean sinesten dut, zure ideiak biluzteko eta eztabaidatzeko prest izatera behartzen dizulako. Horrela soilik lortuko dugu jendearen argudioak indartzeko baliogarririk izatea.

Mundu dohakabeen bizi gara. Gutxiengo pribilegiatu bat gehiengoaren sufrimenduaren lepotik bizi da. Baina ez da egia ezkerrearen kontraesanik ez duela. Mezu koherentea eraiki daiteke norberaren identitatea osatzen duten elementu guztiak ezbaian jartzeko prest izanez gero. Akatsak, kontraesanak edo historiako zenbait esperientziaren porrotak aitortuta ere.

Hedabide handietako tertulietara joaten utzi nautenean, gurekin ados ez daudela esatea dute baina zentzuzkoak ez garena ez dute esaterik izango. Haluzinatzen dut telebistako zenbait saioetako langileak, soinu teknikariak, kamerateleak eta, niregana hurbildu eta zera esaten didatenean: “Oso ondo, txo! Segi hauei egurren ematen!” Eta hauek ez dute zertan ezkerrekoak izan behar.

Haien errealitatea eta izaerarekin bat egiten duen diskurtsoarekin identifikatzen den jendea da. Hor dago gako erabakigarria.

Militantzia eta konpromisoa komunikabideetan. Askorentzat balore kontrajarriak.

Batzuek soilik diru truke lan egiteak ez du esan nahi objektiboak edo neutralak direnik. Esan nahi duen gauza bakarra horixe bera da; diru truk egiten dutela lan. Komunikabide guztiek dute ildo editoriala baina hori ez da arazoa. Problema sortzen da jabearen interes pribatuak babes-

teko ildoak zehazten denean. Informazioa eskubidea bada, osasuna edo hezkuntza diren gisan, zergatik hedabide gehienek jauntxo baten ondare eta interes pribatuen mesedetara egiten dute lan? Zergatik baimentzen da ondare

publiko hau kontrolatu eta saleros-ten duten ugazabak izatea? Komunikabideek publikoak izan behar dute eta interes publikoaren zerbitzura izan. Hori da exijitu behar duguna eta ez hedabideak objektiboak izatea. Adierazpen askatasuna auzitan jartzen da komunikabideak esku pribatuetan direlarik. Osasuna eta hezkuntzarekin, adibide pare bat aipatzearen, gertatzen den bezala.

Zurea ez da unibertsitateko irakaslearen ohiko jarduna.

Irakaslearen egitekoa ez da soilik ikertzea edo azterketak egitea. Unibertsitateak parte-hartze sozialerako eta publikotasunaren defentsarako gunea ere izan behar du. Formatu akademiko klasikoek zeharo asperitzen gaituzte, ordea. Ikus-entzunezkoen kulturaren guztiz murgilduta dagoen gizarte honetan zentzua galdu dute. Iritzi-sortzaileak ez dira unibertsitatean, komunikabideetan baizik. Horrexegatik, telebistako formatuekin lotura handiagoa duten ekitaldi publikoak antolatzen hasi ginen. Hasieratik oso harrera ona izan zuten eta handik gutxira Madrilgo Vallecás auzoko tokiko telebistan, TeleK, tertulia politikoa egiteko gonbidapena jaso genuen. Horrela sartu ginen ikus-entzunezkoen munduan.



Euskal Herriko solaskideak ohikoak dira Fort Apache eta La Tuerkan. Sabino Cuadra Lasarte Amaiurreko diputatua edo Martxelo Otamendi eta Alberto Pradilla kazetariak, kasu.

Komunikabideen panorama ikusita, Espainiako Estatuko ezkerak albo batera utzi al du hegemoniaren borroka medioetan?

Espainiako ezkerre beti oso eskoila izan da. Beste hainbat gaitan bezala, erabateko ezintasuna erakutsi du. Zantzu suizidak dituen gainera. Izan ere, Espainiako Estatuko sindikatu handienek, CCOO eta UGTk, bizirauteko behar duten gizarte zibila eraikitzeke tresnak sortu ez izanak erakusten du haien baldarkeria. Elizak egin duenaren guztiz aurkako egin dute. Eliza Katolikoak oso argi izan du komunikabideen rol estrategikoa eta haiek kontrolatzeko

edota baldintzatzeko apustu handia egin du hasieratik.

Oso traketsak izan direla ikusteko Euskal Herria da froga. ETaren ekintza armatuek edota legez kanporatzeek sortutako zailtasunen gainera, hemengo ezkerre zergatik jarraitzen du indartsu? Gizarte zibila egon badagoelako. Ikastolen sorrera, kooperatiben sistema, egunero ezkerreko egunkariak kioskoetan egotea, etengabe gizartearen eragiten ari den herri mugimendua... hauek dira ezkerrearen existentzia bermatzen duten faktoreak. Euskal Herri hitzaldia eskaintzera etortzen naizen aldiro jabetzen naiz beste era

batean eztabaidatzen dela. Jendea, orokorrean, politikoki trebatuagoa da. Euskal Herrian La Tuerka hainbeste ikustek asko harritzen gaitu. Oso herri txikia zarete eta gurea da Madrildik egiten den tertulia bat, askotan, gainera, oso madrildarrak diren gaiak jorratzen dituen. Hala eta guztiz ere, prestakuntza politikoa askoz handiagoa denez, produktuak arrakasta du hemen.

"Ikus-entzunezkoek, gaur egun, kanpaina politikoen %95a osatzen dute". Hain zorrotz mantentzen al duzu zure baieztapen hau?

Baietz uste dut. Ezkerretik politika egin nahi duenaren muinean dago propaganda eta XXI. mendean ikus-entzunezko dispositiboek bitartez eraikitzen da. Mitin politikoak, funtsean, bideo bat osatzeko eszenografiak dira. Manifestazio handi baten sendotasuna ez datza parte hartu duten 100.000 lagun bizi pertsonalean, irudiaren mezuan baizik. Jendea koreografiaren parte da, komunikazio tresna politiko baten atala. Komunikabideen bitartez sozializatzen gara eta iritzia ere haien bitartez sortzen dugu.

Idatzizko prentsa eta literatura funtsezkoak dira, baina erabateko erabakigarritasuna daukana telebista da. Egun, zorionez, Interneten bitartez hedatzen da eta horrek indar-harremana orekatzea ahalbidetzen digu. Lidergoa bideo eta ikus-entzunezko dispositiboek osatzen dute. Iritziaren erreferenteak dira komunikabideetan agertzen direnak. Horregatik diot, kanpaina baten %95a, funtsean, ikus-entzunezko politika da.

"Politikan ez da gauza politikan" zioen Lazkao Txikik, baina traje eder batek dena konpontzen ei du.

Espainiako Estatuko indar politikoaren artean, historia hurbilean ezker abertzaleak kudeatu du ondoen afera hau; buruzagiak haren oinarriak bezala jantzen ziren. Hori funtsezkoa da politikagintzan. Eskuinarentzat ez da arazorik. Eskumako politikarien janzkera, gizarteko piramidean gorantz egiteko bidea iradokitzeke era baita. Baina ezkerrean logika horrek ezin du lekurik izan. Batzuetan jantzi behar direla

argi daukat baina ez politikagintza-
ren adituaren itxura izateko. Detaile
sinboliko horiek erabakigarriak dira
baina ezkerrearen ordezkariak herria
ordezkatu behar dute.

Horrexegatik da egundokoa Sabi-
no Cuadra. Gizon horrek agian ez du
metroa erabiltzen baina arazo gabe
imajinatzen ahal dut metroa hartzen
egunero. Eta Jesus Posada, Espainia-
ko Kongresuko presidentea, ez.
Horrek estetikarekin, jendearengana
zuzentzeko erarekin, diskurtsoare-
kin, mozorrotu gabe elkar ulertzeare-
kin du lotura. Kontua ez da jendea-
rengana zuzentzea lerroa balitz
bezala baizik eta diskurtsoaren bitar-
tez gehiengoak sortzeko gai izatea.

**Ezkerrek orokorrean duten gaitzetako
bat ez al da eskaintza politikoa azal-
tzen edo gizarteratzen ez jakitea?**

Gu saiatu gara. Egun, elitearen aur-
kako kontzientzia sortzen ari da. Jen-
dea politikariarekin nazka eginda dago.
Horrek, goikoez eta behekoek hitz
egiteko aukera ematen digu. Jendeak
oso ondo baitaki goian ala behean
dagoen, zeintzuk diren pribilegiatuak
eta zeini egokitu zaion izorratu beha-
rra. Mintza gaitezen horretaz.

Adibidez, Los Chicos del Maiz
hip-hop taldearen leloa erabilita
–“España marka zaborrean bilatzen
ari den familiako aita da”–, jende
askorengana hel gaitezke, eta hortik
abiatuta BPGaren banaketari buruz-
ko datuez hitz egin dezakegu. Hau
da, jendearekin konektatzeko balio-
garria izan daitekeen hizkuntzarekin
jolastea. Abiapuntuak zehazteko
orduan konplexuak diren gauzak
erraztu, eta ondoren, garapenean
ahalik eta zorrotzen izatea. Gai hone-
tan, ezkerrek arazo asko izan ditu.

Zer ari da gertatzen Madrilén?

Madril oso hiri bortitza da. Espai-
niako eskuinak duen botere-gune
nagusietako bat izan da, Valentzia-
rekin batera. Oso deigarria da M15
mugimenduak arrakasta gehien izan
duen lekuak Madril eta Valentzia
izatea. Herri mugimendua eta anto-
laturiko ezkerrearen gehiengoak sun-
tsituak dauzkaten bi hiri, hain zuzen
ere. Madrilén agintean den kasta
politiko eta ekonomikoak IUko
sektore zabalak xurgatu ditu.
M15ek erakutsi zuen ezker politiko

Torturaz, aho bilorik gabe

“Orain gutxi grabatu dugun saio batean Martxelo Otamendi, *Billy el Niño*
k torturatu zuen Jaime Pastor, Argentinako erbesteratu bat, Barrionuevo
kartzelara lagundu zuen PSOEko buruzagi bat eta polizia bat izan ditugu.
Emaizta izugarria izan da. Adibidez, poliziak zioen Espainian torturaren
arazoa Gobernu dela, izan PPkoa edo PSOEkoa. Argi esaten zuen, gal-
deketetan informazioa lortzeko aberrazioak egiteak arrazoi politikoak
dauzkala. Hau zentzuduna den edozein poliziak esatea normala da. Aldea
da, lehenago inork ez diola hori galdetu”.

eta sindikala ez dela dagokion lana
egiten ari. M15 leherketa moduko
bat izan da eta Madrilén oso garran-
tzitsuak izan diren mugimenduak
agertzea ahalbidetu ditu: “marea
zuria”, hezkuntzaren babeserako
“marea berdea” edota Stop
Desahucios mugimendua, kasu.

**“ETAren ekintza armatuen edo
legez kanporatzeen gainetik,
Euskal Herriko ezkerrek zergatik
jarraitzen du indartsu? Gizarte
zibila egon badagoelako”**

Ez dut uste Euskal Rock Erradi-
kala delakoa ezker abertzaleak sor-
tzea erabaki zuenik. Guztiz kontra-
koa, hain zuzen. Hastapenetan oso
gaizki hartua izan zela sinetsita
nago. Hala ere, denborak aurrera
egin ahala, Espainiako Estatu osoko
ezkerreko jendeak bere egin zuen
kultur-adierazpen bilakatu zen.
Punka entzun eta akorde bostunak
bi hatzekin jotzen zituzten langile-
aizotako gazteak Erresuma Batuan
egiten zenaren bertsioak egiten hasi
eta berehala, bonba hutsa zela jabe-
tu ziren. Horrek ezkerrearen kon-
tzeptu asko irauli zituen. Geroago
herriaren adierazpen hori ezkerrek
bideratu, zuzendu eta antolatu
zuen. Eta ondo iruditzen zait.
Madrilén, beste maila batean, antze-
ko prozesua eman delakoan nago.

**Nola ikusten da Euskal Herriko egoe-
ra Madrildik?**

Orokorrean, poztasun sentsazioa
dago, garai gogor eta zailenak igaro
direla ikusita. Espainiako ezkerre-
rentzat ere arnasa da. Orain Euskal
Herriaz hitz egin dezakegu, eta

mezu ofizialekin aldentu terroristak
garela entzun gabe.

Etorkizunari begira jarrita, guda-
zelaian galtzen dena hauteskontzie-
tan ez da irabazten. Normalizazio
politikoak hitz egiteak jokoaren
arauak aldatu direla onartzea dakar
eta arau horiek arerioarenak dira.

Eguno erregimenaren krisi-
ak ate asko ireki dizkio
erabakitzeko eskubidearen
gaiari, baina halere, ETA-
ren jardunak baldintzatuta
ez den herri proiektua bir-
definitzea dagokizue orain.
Hori oso gatzat da. Jendea
biltzeko gaitasun alderaezi-
na izan baitu ETAk, beste

inork izan ez duena. Bera desagertu
eta presoak kalera irten ahala, oso
eszenatoki korapilatsua sortuko da.
Kataluniako ERCren bide bera
hartu nahiko duten sektoreak ager-
tuko dira, beste batzuek esango
dute krisi egoera honetan aferra
soziala nazionalaren gainetik dagoe-
la eta abar.

Bideragarria al da Euskal Estatu
Europar Batasunean, euroaren eta
merkatu ekonomiaren eremuan?
Posible al da autodeterminazio
eskubidea gauzatzea Espainiako
Estatuan solaskiderik izan gabe?
Nahikoa indarra izaten jarraitzen
du Espainiako Estatuak zera esate-
ko: “Herritarren %80 independen-
tziaren alde izanik ere, instituzioak
neuk kudeatzen ditut eta hemendik
ez da inor ere mugituko”. Herri
mailako proiektua akordioak egiten
sortzen da eta eszenatoki berri hau
korapiloz betea dago. ■

argia.com Elkarriketaren
bidea eta bertsio luzea ikus
ditzakezu ondoko kodea
mugikorrarekin eskaneatuz.



XXI. mendeko Donostia euskalduna irudikatzen

Nola lortu mende honetako Donostia euskaldun izatea? Nola trinkotu donostiar euskaldunen komunitatea? Galdera ugari Bageraren jardunaldietan eta gertutik jarraitu beharreko gaiak, asko: gazteak, saretzea, erreferenteak lantzea, erakargarri dena euskaraz eskaintzea, dakienak euskaraz egitea...

| SAIOA LABAKA |



Bagera Elkarateak nahi baino gazte gutxiago bildu du jardunaldietan. Dena dela, Donostiako Piratekin harremana sendotzea lortu du. Argazkian, kolektibo horren ekintzetako bat.

BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkarateak XXI. mendeko Donostia euskalduna. Bidea marraztera goaz! izeneko jardunaldiak antolatu zituen udaberrian, martxotik ekainera bitartean. Donostiako euskal komunitatea trinkotzeko eta aktibatze asmoz prestatu zuen egitasmoa. Jardunaldien helburu nagusiak izan ziren Gipuzkoako hiriburuan euskaraz bizitzeko jarraitu beharreko norabidea zein den erabakitzea eta lan-ildo garrantzitsuenak zehaztea.

Donostiako euskaltzale guztiek parte hartzeko hausnarketa gunea zabaltzeko nahi izan zuten elkarateak.

Sei hausnarketa saio antolatu zituzten. Saio bakoitzaren hasieran, egitasmoarekin bat egin zuten hainbat donostiar aditu eta arituk hartu zuten hitza euren ikuspegiak, iritzia eta proposamenak plazaratzeko. Gonbidatuta izan ziren Mikel Zalbide, Lorea Agirre, Igor Otxoa, Maria-Jose Azurmendi, Donostiako Piratak, Beñat Gaztelumendi eta

Asier Basurto. Ondoko hiru galdera hauetaz erantzuten saiatu ziren gonbidatuak, baita saioetan parte hartu zuten euskaltzaleak ere:

“Zure ikuspuntutik, zer behar dugu / behar genuke XXI. mendean Donostia euskaldun izateko?”

“Nola bihurtu gaitezke euskaldunak ikusgarri eta erakargarri Donostian?”

“Zer egin dezakegu, nola antolatu beharko ginateke donostiar euskaltzaleok bide horretan?”

Donostiako Piratak

«Ez da euskara erakargarri egin behar, baizik eta erakargarri zaien hori euskaraz egin»

“Donostiako jende elebiduna euskaraz hizketan jartzea da gakoa. Gazteen artean behintzat, 30 urtetik beherakoetan hiru laurdenak euskaraz daki eta horrek izugarrizko indarra sor dezake. Mezu positiboen bidez eta era natural batean elebidun horiek euskarara ekarri behar dira”.

“Nerabe eta gazteentzat dagoen aisialdi eskaintzan euskararen hutsune handia dago eta horrek hizkuntza-ohituretan eragiten du. Gazteei dagokionez, euren aisialdia euskalduntzeaz haratago, euren egunerokotasunean euskararen aldeko urratsa ematea lortu behar da. Gazteentzat, euskaraz egin behar da eurei gustatzen zaien hori. Ez da euskara erakargarri egin behar, baizik eta erakargarri zaien hori euskaraz egin”.



Aritz Barela.

Lorea Agirre, kazetaria

«Donostia 2016rekin lortu behar genuke ‘euskal’ ez dadila izan adjektibo bat»

“Egindako ikerketa kualitatibo batek Donostian euskal kulturaren presentzia azken urteetan asko lausotu dela dio. Nahiz eta gehiago egon gutxiago ikusten dugu gure burua eta gutxiago ikusten gaituzte. Euskaldun gehienak gune ez euskaldunetan sakabanatuta bizi gara, beraz, oso zaila da komunitate bat trinkotzea”.

“Donostia eta Gipuzkoa, bereziki, izan daitezke momentu honetan euskal kulturaren inguruko laborategi; gauza berriak eta ezberdinak egiteko, gaizki egindakoak baloratzeko... Sorkuntzari dagokionez, jendeari protagonismoa eman behar zaio. Donostia 2016rekin eta Tabakalerarekin lortu behar genuke ‘euskal’ edo ‘euskara’ hori ez dadila izan adjektibo bat, baizik eta izan dadila substantibo bat. Ez dadila izan euskal kultura programazio edo ekimen baten zati bat, euskal horrek orokorra izan behar du eta horren azpian egon behar lukete gainontzeko guztiek”.



DANI BLANCO

Ondorioak

Ainara Vazquez Bagera elkarteko kidearekin elkartu gara jardunaldietatik atera dituzten ondorioak eza-gutzeko. Ideia garrantzitsuenak laburbildu dizkigu. “Zure ikuspuntutik, zer behar dugu / behar genuke XXI. mendean Donostia euskaldun izateko?” galderari lotutako ondorio nagusietako bat haxe izan zen: hiriko elebidunak, euskaraz dakitenak, euskaraz hitz egiten jartzeko beharra dagoela. Donostian hizkuntzaren ezagutza maila nahiko altua da, batez ere gazteen artean, eta eremu horretan eragin beharra dagoela nabarmendu zuten. Donostiako euskaldunen komunitatea trinkotu beharra dagoela ere azpimarratu zen hainbat saiotan. Donostia oso handia ez bada ere, euskaldunak hainbat auzotan sakabanatuta daudela jakinarazi digu Vazquezek; euskaltzaleak berrantolatzeko premia dagoela gaineratu digu. Hiria euskalduntzeko lan horretan goitik behera eta behetik gora eragitearena ahotan hartu zuten jardunaldietako parte-hartzaileek. Udalek eta administrazioek egin behar duten lana eta herritarrek eta gizarte mugimenduek egiten dutena, biak direla beharrezkoak eta ezin direla kontrajarriak izan ondorioztatu zuten. Gizartea kontzientziatu beharra eta diskurtso ezberdinak uztartzearen garrantzia ere aipatu zituzten.

Nola bihurtu gaitezke euskaldunak ikusgarri eta erakargarri Donostian? Jendea euskarara hurbiltzeko diskurtso positiboak eta erakargarriak sortu behar direla ondorioztatu zen jardunaldietan. Gazteei begira, berriz, erakargarri zaien hori euskaraz eskaintzeak duen garrantzia azpimarratu zen eta euskara erakargarri bihurtzearena

pasatzok euskara gaizki edo batere ez du ulertzen. Donostian 1989tik hona ia sei puntu egin du gora erabilerak. Baina, 2011ko neurketan duela hamar urte jaso zen erabiler-maila bera jaso da (%15,9). Bost urte lehenago erabilerak %18koa izan zen.

Ehuneko berrogei euskaldunak dira

EUSKAL HERRIKO hirietatik Donostia da euskaldunen proportziorik handiena duena. %40,4 euskaldunak dira, %26,6 ia-euskaldunak eta %33 erdaldun elebakarrak. 71.200 herritar inguru dira euskaraz ulertu eta hitz egiteko gai; 46.900 inguru ulertzeko gai dira eta 58.000

pasatzok euskara gaizki edo batere ez du ulertzen.

Donostian 1989tik hona ia sei puntu egin du gora erabilerak. Baina, 2011ko neurketan duela hamar urte jaso zen erabiler-maila bera jaso da (%15,9). Bost urte lehenago erabilerak %18koa izan zen.

Maria-Jose Azurmendi,
soziolinguista

**«Gizartea anitza da,
beraz, diagnosiak hainbat
alderdi kontuan hartuta
egin behar dira»**



DANI BLANCO

“Euskararen erabileraren AMIA (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak) identifikatu behar dugu diagnostikoa egiteko. Gizartea anitza eta konplexua da, beraz, diagnosiak alderdi anitz horiek kontuan hartuta egin behar dira (zonalde politikoa eta soziolinguistikoa, eremuak, arloak...)”.

Igor Otxoa
(Donostia Kultura 2016)

**«Kanpokoekin, gureak duen
balio erantsian sinetsita
jokatu behar dugu»**



ARGAZKI PRESS

“Hiztun mota bakoitzarekin egin beharreko lanketa ezberdina da: bertako ez euskaldunekin enpatizatu behar dugu baina gure beharren oreka galdu gabe. Euskaldunekin erreferentzialtasunak landu eta eragileak saretu behar gara estrategia komun baten bueltan. Eta, kanpokoekin gureak duen balio erantsian sinetsita jokatu behar dugu”.

Mikel Zalbide, euskaltzaina

**«Paradigma okerra da:
jarrera, ikasketa prozesua
eta erabilera»**



DANI BLANCO

“Azken 50 urteotan euskaltzaleok planteatu dugun paradigma okerra da: jarrera, ikasketa prozesua eta erabilera. Erabilerarik gabeko ikasketa prozesuak ez du etorkizunik. Hizkuntza erabiliz ikasten da”.

“Bi orientabide daude eragiteko: goitik beherakoa eta behe-tik gorakoa. Elkarren artean tal-kan ibiliko ez diren moduan antolatzea da beharrezkoa eta eraginkorra. Behe-tik gorako euskalgintzatik zer egin behar dugun erabakitzeak hainbat galderari erantzun beharko genioke: Zenbateko eragina lortuko dugu eta nola neurtuko dugu eragina? Jende hori non dago? Komunitatearen trinkotasun maila zein da? Zenbateko intentsitatea du martxan jarriko dugun horrek? Ze ondorio izango du jasotzailearen gaitasunean eta erabileran? Egin nahi dugun hori egingarria da?”.

alboratu. Parte-hartzaile gehienek ustez, aisialdiak lehentasuna izan behar luke Donostian. Bestalde, erreferentzialtasunaren gaia ere agerian geratu zen jardunaldietan. Donostia 2016 eta Tabakalera bezalako proiektuek Donostian izango duten pisua ikusirik, euskal kulturaren ikur bihurtu beharko lirakeela aipatu zen. Zentzu horretan, Donostiak eta Gipuzkoak aitzindari izan behar dutela nabarmendu zen. Hirugarren planteamenduari dagokionez, “Zer egin dezakegu, nola antolatu beharko genuke donostiar euskaltzaleok bide horretan?”, Vazquezek aipatu du saretzearena izan zela gehien errepikatu zen ideia. Hori guztia ondo egiten asmatu beharra dago, ahalik eta eraginkorrena izan dadin. Eragile ezberdi-

nen arteko saretzeaz ere aritu ziren, ez bakarrik euskalgintzaren inguruko eragileen saretzeaz. Era berean, euskalgintzak gizarte mugimenduetatik asko duela ikasteko aipatu zen. Euskalgintzan lanean ari diren boluntarioen gaia ere ahotan hartu zuten: azken urteetan boluntario kopuruen gainbehera nabaritu dute; behetik gorako presio sozial hori gutxitu egin da.

Urrian jarraituko dute lanean

Jardunaldien inguruko balorazio positiboa egin du Bagera Elkartek. Parte-hartzaileen profilari dagokionez, uste baino helduagoa izan da; jende gaztea erakartzea ez dute nahi zuten neurrian lortu. Hala ere, harreman-sareak sortu dituzte gazteekin, Donostiako Piratekin, esaterako. Oro har, pozik geratu dira bildutako jende kopuruarekin eta kalitatearekin. Hitzaldietatik atera dituzten ondorio eta ideia horiei guztiei zukua ateratzeko gogoz daude Bagera Elkartean. Udazkenean, urrian,

**Azken urteetan boluntarioen
gainbehera nabaritu dute;
behetik gorako presio sozial
hori gutxitu egin da**

beste bi saio antolatuko dituzte Topagunearen laguntzarekin; jardunaldi parte-hartzaileak izango dira horiek ere. Lan-ildo batzuk zehaztu nahi dituzte horiei lotutako hainbat ekintza bideratzeko. Helburua izango da lehentasun batzuk finkatzea eta lan-taldeen bidez ekintzak abian jartzea. Donostiako euskalgintzak euskararen alde egin beharreko bidea marrazten hasi dira eta horretan jarraituko dute. ■



Irregularitasunak kontratuetan

EAEko Kontu Epaitegiaren fiskalizazio txostenaren arabera, irregularitasunak izan dira 2011ko AHTren kontratu guztietan, Naiz.info-k argitaratu duenez.

| XUBAN ZUBIRIA |

PATXI LOPEZEN Gobernuak 2011n AHTren eraikitze lanetarako egin-dako kontratu guztiek gutxienez bost irregularitasun dituztela argitu du epaitegiak fiskalizazioaren inguruan egindako txostenak. Adjudikazioak balio-judizioari lotuegi zeuden kontratatutako enpresak aukeratzekoan. Txostenak dioenez AHTren kontratuen espedienteetan ez dira zehazten eskaintza onena adjudikatzeko irizpideak.

2011n Eusko Jaurlaritzak lau kontratazio egin zituen, bakoitza denbora tarte desberdinarekin eta guztiak irregularitasunekin. Adjudikazio hauetan guztietan, erabakigarria izan zen kontratatutako balio-judizioa, aukeratzeko proposamenetatik bakarra ere ez zelako merkeena, Naiz.info-k dioenez.

Bestalde, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak antzeman du AHTren lau zatietako hirutan lan programak garaiz kanpo onartu zirela. Gainera, langileen segurtasuna arriskuan egon dela salatu du epaitegiak txostenean. Bertan esaten denez, Patxi Lopezren Gobernuak obrak hasi



WWW.AHTGELDITU.ORG

Hego Euskal Herriko AHTren obretan 10.000 milioi euro gastatzea aurreikusten dute. Irudian, hondeamakinetan egindako protesta Ordizian.

ostean onartu zuen segurtasun eta osasun plana; eta ez ditu betetzen obretarako legeak ezartzen dituen gutxieneko segurtasun neurriak.

Bizikleta martxa AHTren aurka

AHTren aurkako bizikleta martxa antolatu du Mugitu! kolektiboak Lurraren alde, mugitu eta eragin lelopean. Altsasutik abiatuko da uztailaren 25ean eta astebeteko itzulian hainbat herri eta eskualde zeharkatuko ditu: Urbina, Legutio, Aramaio, Angiozar, Urretxu, Beasain, Zerain, Legorreta, Tolosa, Andoain, Zubietta, Zarautz, Hernani, Lezo, Irun eta Olereta igaroko ditu, besteak beste. Donostian amaituko da abuztuaren 1ean.

Lurraren aldeko borrokan oinarrituko da ekimena. Hainbat ekintza egingo da martxak iraun bitartean: ekintza desobedienteak, herritarre-

kin topaketak, batzar eta eztabaidak, kale ikuskizunak eta abar.

Gainera, AHTz gain bestelako azpiegitura handiak ere salatuko dituzte, haien kontrako borrokan ari diren eragileekin harremanak indartuz.

Lurraren defentsatik harago, badira AHTren kontra egiteko arrazoi gehiago, Mugitu!-ko kideen hitzetan. Arrazoi ekonomikoak adibidez. Bizi dugun krisi egoeran Hego Euskal Herrian 10.000 milioi euro gastatzea aurreikusita dago: aurtun EAEn 568 milioi euro bideratu dira AHTra eta Nafarroako aurrekontuetan 130 milioi gorde dira hastapenetan dauden lanetarako. Zifra horiek ulerteziak egiten zaizkie mugimenduko kideei, jende ugari pobrezia larrian bizi dela ikusita. ■



Euskal Konfederazioa ez dago gustura EEPk eta Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzekin

LAPURDIKO, Nafarroa Behereko eta Zuberoako euskalgintza biltzen duen Euskal Konfederazioa haserre agertu da Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) eta Eusko Jaurlaritzak iaztik hona diru-laguntzak ez dituztelako emendatu. Konfederazioak adierazi duenez, “EEPk berak saihestezintzat jotzen dituen eragileak behar bezala lagundu gabe, euskararen gainbeherak segituko du”.

EEPk 1.200.000 euro banatu ditu eta Eusko Jaurlaritzak 400.000 euro. 2012an lehenengoak 1.160.000 euroko laguntza eman zuen eta bigarrenak 440.000 eurokoa. Euskal Konfederazioak diru-laguntzetan jaitsierak izan dituzten bi alor nabarmendu ditu. Seaskak, ikasle kopuruak gora egin arren, 25.000 euro gutxiago (380.000) jaso ditu aurten. Konfederazioari harrigarria egin zaio jaitsiera, kontuan izanda EEPren hizkuntza

politikan lehentasuna belaunaldi gazteak direla. Frantziako Gobernu sozialista eta Eusko Jaurlaritzak gogor kritikatu ditu ikastolen egoitzen aferagatik eta horren ondoren laguntza txikitzeagatik. Ikas Bik eta Biga Baik, hurrenez hurren, 15.000 euro eta 30.000 euro besterik ez eskuratu izanaz galdegin du Konfederazioak.

Euskalgintzak azpimarratu duen bigarren alorra euskal hedabideak dira. Konfederazioaren ustez, EEPk hedabideak euskara berreskuratzeko ezinbestekotzat jotzen dituela kontuan hartuta, ulergaitza da iaztik laguntza %4 jaitsi izana. Laguntzak jaso dituzten hedabideak ondokoak izan dira: Kanaldude (67.200 euro), Herria (40.800 euro), Ipar Euskal Herriko Hitzak (24.000 euro), kazeta.info (24.000 euro), TVPI (43.200 euro), Info7 (4.800 euro) eta Radio Kultura (28.800 euro).

Bahea

Txerra Rodriguezek Garaigoikoa
blogean esanak:

“Framing berriaren ideiarekin bat, azterketa egin du Iñakik [Martinez de Lunak]. Euskarak komunikabideetan duen presentzia aztertu du; hobe esanda, egunkarietan duen presentzia.

Ikerketa horren emaitzak argigarriak dira. Euskara ez da lehentasunezko gaia egunkari gehienetan, bigarren mailakoa baizik. Hala ere, gai tematia da. Kutsu ezkorreko ukitua dute hizkuntza-politikako eta lan munduko albisteek. Jai aldarrikapen eremuari lotuta dauden albisteek kutsu baikorrakoa dute. Izaera ludikoari eta norberaren hautu askeari lotuak dira erakargarrienak. Premia sozial nagusietatik lekutan dauden kontuak dira eta, beraz, erakargarritasun apalekoak.

Zer pentsatua ematen du. Eta Iñakik dioenarekin bat nator: Pentsatu bat eman behar zaio giro euskaltzaleetan egun erabiltzen den komunikazio estrategiari. Ezta?”.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Naval: Europar Batasunetik Euskal Herrira, Madrildik igarota

EUROPAKO BATZORDEAK Espainiako Estatuari eskatutako ontzigitza enpresei 2007 eta 2011 artean *tax lease* hobariaren bidez emandako diru laguntza publikoak itzultzeko. Laguntza horiek ontziak egiteko finantzaketa eskaini zuten inbertitzaileek itzuli beharko dituzte (bankuek eta inbertsio funtsek), eta ez ontzigitza enpresek. Kopurua zehaztu ez den arren, 2.000 milioi euro izan daitezke. Diru hori Espainiako Ogasunean sartu behar da. Hain justu, Espainiako erakunde hori izango da zifra zehatza zein den erabakiko duena, baita dirua zein inbertitzaileek itzuli behar duen eta nola egin behar duen erabakiko duena ere. Ondorioz, garai horretan ontzigitza finantzatu zuten inbertitzaileek dagokien kuota ordainduko diote Ogasunari. Euskal ontzigitzako langileek mobilizazioekin segitzen dute; euren etorkizuna arriskuan dela diote, ontziak finantzatzen dituztenek dirua itzuli behar badute, finantzazio berririk ez delako izango.

Egoera honek berriz ere agerian utzi du subiranotasun nazional, politiko, ekonomiko eta laborala aldarrikatzeko beharra; gure sektore ekonomiko eta industria estrategikoen inguruan erabakiak hartzeko eskubidea, alegia. Laguntza publikoen kasuan, beste hainbat arlotan bezala, bistakoa da muga: EBk erabaki eta Espainiako eta Frantziako Estatuak betearazi egiten dute, euskal herritarren iritzia bazterrean utziaz. Espainiako eta Frantziako Estatuak defendatzen dituzten interesak, jakina, ez dira euskal herritarrenak. Ontzigitzan, Euskal Herriak sektore estrategiko hori indartu behar du, garapena eta berrikuntza behar dira mundu mailan lehiatu ahal izateko. Euskal inbertitzaileak engaiatu beharko lirarteke milaka familia mantentzen dituen ontzigitza sektore lehiakorari eusteko bidean irtenbideak aurkitzeko.

Juan Mari Arregi



Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Herriarren begietan lapurrak

ARANTZA QUIROGA EAeko PPko idazkari nagusia haserre dago eta irmo adierazi du ez duela onartuko bere alderdia zikintzerik. Beranduegi makinak gelditzeko: espainiarren %86ren ustez *–El Mundo*-k iragan asteburuan kalera-tutako inkestaren arabera–, PP legez kanpoko diruaz finantzatu da. Hori Espainian, pentsa Euskal Herrian zer pentsatuko den.

Eta, enfokea handituz, Nafarroan zer? Ez dut azken uneko inkestarik ikusi, baina orain artekoak argi erakutsi dute herriarren gehiengo zabalak oso ilun ikusten duela UPNren kudeaketa, eta bereziki CAN auzian, baita bere botoemaile askok ere.

Baina Espainiako Auzitegi Goreneko fiskal Antonio Narbaezek ez du delitu zantzurik ikusten CAN auzian, eta bere begiek, orain arte Maria Paz Benito epaile nafarrak ikusi duen guztiz kontrakoa ikusi dute. Ezaguna da legea interpretatzeko dagoela egina, baina hainbeste? Zer pentsatuko du CAN auziaz, orain, bat-batean, kudeaketa publikoaz hain arduratsu agertu den Juan Calparsoro EAeko fiskal buruak? Eta Espainiako Auzitegi Konstituzionaleko buru den eta oraintsu arte PPko militante izan den Francisco Perez de los Cobosek?

Espainia gero eta okerrago dago eta ez da samurra irudikatzea nola aterako den ataka horretatik gatazka sozial edota politikoko handi bat bizi barik. Nafarroako herriarren gehiengo oso handiarentzat eskandalua da Yolanda Barcinak CANeko batzorde mamu batean parte hartu izana eta 31.324 euro kobratu izana bilera gutxi batzuen-gatik. Narvaezentzat normala. Miguel Sanzek, Barcinak eta abarrek aitortzen dute publikoki gaiz-

ki egin zutela, eta dirua itzuliko dutela; Narvaezek, aldiz, lasai egoteko esaten die, ongi egin zutela, CAN pribatua dela eta beraiek kobratzeko eskubidea dutela. Horrek guztiak, izen bat du: Madril. Ikusiko da zer dioen Auzitegi Gorenak berak, baina abiapuntua ezin da desagokiagoa izan.

ZUBIETAKO ERRAUSKAILUA

ere justiziaren zaintzapean dago, noiz eta Bilduk errauskailu proiektua gelditu duenetik. Ikerketak emango du eman beharrekoa, baina susmagarria da Calparsorok orain bakarrik ikusi izana, eta bere ekimenez, agintariak ikertu beharra, zergatik eta herriarren patrika babesteko asmoz. Bitxia da, esaterako, EAeko Abiadura Handiko Irlaren sorrera inongo ikerketarako motiborik ez izatea. Baina, ondo pentsatuta, logikoa ere bada, 5.000-6.000 milioi euroko inbertsio horrek ez duelako, antza, eragin handirik herriarren poltsikotan. Agintariak etengabe dioskute oparotasun garaian gure ahalme-

Bitxia da EAeko Abiadura Handiko Irlaren sorrera inongo ikerketarako motiborik ez izatea

netik gora bizi izan garela, baita instituzioak ere, eta behar baino gehiago gastatu dugula. Baina ez, Calparsorok orain ikusi du herriarren sosak babestu beharra, azken hamabost urteetan ez.

Errauskailua eta Juan Calparsororen albistearena irakurrita, medio gehienek badute norabide bat, batzuetan agerikoagoa eta besteetan lerro artean irakurri beharrekoa: Bilduk hartutako era-

bakiaren ondorioz, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak (GHK) dirutza ordaindu beharko diela hainbat enpresei kalteordain gisa, eta hori Bilduren kudeaketa txarraren ondorio dela eta, beraz, ikertu beharrekoa.

Auziak aurrera egiten badu, etorriko dira atzera begiratzeko garaiak eta orduan aztertu beharko da, besteak beste, instituzioek noraino eta nola baldintza dezaketen hurrengo legealdiko gobernuak; eta, batez ere, noraino joko politikoan aritu herriarren diruak erabiliz eta arriskatzuz.

GHK-k udal hauteskundeak baino bi hilabete lehenago erabaki zuen *–2009ko otsailean–* Zubietako erraustegiaren esleipena FCC eta beste enpresa batzuen esku uztea. Garai berean sinatu zituen *swap* ospetsuak barne dituzten mailegutzarrak hainbat bankurekin (azken-azken sinadura ekitaldia maizteko udal hauteskundeak baino 10 egun lehenago).

Bistan da, Zubietako errauskailu proiektua lotuta uzteko egin

ziren mugimendu haiek eta hurrengo balizko gobernu baldintzatzeko.


Justiziaren bidea aparte utzita eta soilik etika politikotik begiratuta, zilegi ote da legealdiaren azken egunetan, teorian gobernu


berri bat etor daitekeenean, halako operazioari egitea? Zilegi ote da horrela jokatzeko herriarren diruarekin? Ez ote da logikoagoa zain izatea eta hauteskundeon ondorioz ateratzen den gobernuak, aurrera edo atzera egitea, bere programan agertutako aginduaren arabera? Badu lana Juan Calparsoro fiskal buruak. ■



ASTE HONETAKO

zozketa





-alde zaharra- DONOSTIA

JAN
EBAN
ENTZUN
TRUST
ETA
IRASTI

**A fuego negro
jatetxea**

2 lagunentzako afaria

Abuztuaren 31, 31
Donostia GIPUZKOA

www.afuegonegro.com

1



**EUREKA!
zientzia museoa**

3 harpidunentzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

2



**Bilboko
Euskal Museoa**

3 harpidunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

3



**Artium
Arte Garaikideko
Euskal Zentro-Museoa**

3 harpidunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

4



Okatxu

2 kamiseta opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2377. Argia)

REAL - TOULOUSE partidua

- Xabier Mendiara Lasa (Donostia)
- Pake Garzia Konde (Orio)

IRUÑEKO PLANETARIOA

- Juan Jose Belamendia Senperena (Azkoitia)
- Jabier Alzorritz Lardies (Bilbo)
- Xabier Iriarte Ansorena (Hernani)

KIROLAZ BADAKIT

- Alfredo Navarro Los Arcos (Iruñea)
- Jose Antonio Elorza Aranberri (Zarautz)

EUREKA! Zientzia Museoa

- Mikel Arrazola Aranzadi (Donostia)
- Andone Barandiaran Arratibail (Pasaia)
- Larraitz Mitxelena Erize (Oizartun)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Maite Arregi Tejeria (Villabona-Amasa)
- David Cascan Porben (Barakaldo)
- Lourdes Iruretagoiena Laka (Zarautz)
- STEE-EILAS (Gasteiz)

PARTE HARTZEKO

Astekari honetan iragarri ditugun zozketetan parte hartzeko aukera, abuztuaren 30 arte luzatuko dugu, udako oporraldia dela eta. Eskakerak internet bidez bakarrik egin ahalko dituzue: gunea@argia.com posta elektronikora mezu bat bidaliz edo www.argia.com/gunea kanalaren bitartez.

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com